

Herririk Herri | 6 |
Bigarren biderrez ospatuko dabe
Gazte Eguna, zapatuan, Mallabian

Ekonomia | 10 |
Langile bat hil da Abadiñoko Secor
enpresan makina batek harrapatuta



Berbaz | 9 |
Inma Escribano: "Diru gitxigaz gauza
asko egin leitekez Mozonten"

Berbaro, 20 urteko bidea euskararen alde

> Berbaro elkarteak 20. urteurreneko
egitaraua aurkeztu dau Durangon.

> Bi hamarkadako ibilbidea eginda,
etorkizuneko erronkak aztertu ditue

2



Berbaro elkarteko kideek Plateruenean aurkeztu dabe, asteen, 20. urteurreneko egitaraua. Iban Gorriti

Tabirakok jaurtiko dau txupinazoa Sanfaustoetan

Durango • Aurrekontu apalagoagaz baina ekitaldiz gainezka datozen aurtengo Sanfaustoetako egitaraua aurkeztu dabe asteen. Tabirako taldeak izango dau jaiei hasiera emoteko ardura. Musika taldeen artean, El Sueño de Morfeoren kontzertua azpimarratu dabe.

3

Babeseko bizilekuak egingo ditue frontoi ondoko lurretan

Izurtza • Herrian eraikiko ditueen lehenengo babestutako etxebizitzak egin gura ditu Udalak frontoi ondoko lurretan. Hirigintza Hitzarmena sinatzeko udalbatzarraren oniritzia baino ez da falta. Gune horretan, babeseko 15 etxebizitza eraiki gura ditu Izurtzako Udalak.

7

Safet Bijelic: arteaz, artisautzaz, bizitzaz

KULTURA • Santa Ana plazako Nualan Gunean salgai dagoz Kroazian jaio eta azken hamar urteetan Durangon bizi den Safet Bijelic artistaren lanak. Metalaren langintzaz egin deusku berba, besteak beste.

13

C.Sharma: "Dodan dana emongo dot"

KIROLAK • Dur&Go Masterreko izarretako bat da Chris Sharma. Asteburuan Landako erakustazoka ondoko rokodromoan ikusiko dogu lanean. Azken hileetan ezin izan dau ondo prestatu. Beharbada, ez dator sasoirik beteenean, baina zeresana emongo dau, seguru. Bere ilustrazio eta asmoen barri emon deusku.

25

• **Berriz**
Frankismoaren biktimak
omenduko ditue gaur

3

• **Garai**
Zubiaurren omenaldia
Durangon egingo dabe

4

• **Abadiño**
Aisialdi gunea eraikitzen

7

Pinfaras
Sagasta
Pinfaras

Sagasta auzoa • Anbe Goikoa
48220 ABADIÑO • Bizkaia
Tel.: 629 143 944
IBAI URIEN

**APAINGARRIA ETA
INDUSTRIALA**

• Fatxadetarako proiektu bereziak
(inpermeabilizazioak, barnizatuak, ...)
• Era guztietako barne eta kanpoko
dekorazioak
(lokalak, tabernak, etxebizitzak, ...)

HERRIRIK HERRI >

▣ DURANGO

Ospakizun eta gogoeta sasoia dau Berbarok

Etorkizuneko helburuak buruan, 20. urteurreneko ospakizunetan murgilduta dabil euskara elkarteak

Berbarok euskara elkarteak hainbat ekitaldi antolatu dau sortuzeneko 20. urteurrena ospatzeko. Gaztetxoei zuzendutako ekintza ugarietz gainera, Plateruenak Terry Lee Hale eta Pettiren kontzertua eta Biko-teatroren *Euskarazetamol* antzez-lana hartuko ditu, besteak beste. Baina urteurrena, ospakizunetarako ez eze, etorkizunera begira elkarteak jorratu beharreko bidea zehazteko eta berrantolatze mugarri legez be baliatuko dabe.

Terry Lee Hale-k eta Pettik kontzertua eskainiko dabe irailaren 18an Plateruenean

Ekitaldiei jagokenez, datoren egunean, 20:00etan hasita, Pablo Sagardoyk, Agurtzane Ortiz de Landaluzek (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarako Ikerketa Zerbitzuko kideak) eta

Jon Aizpuruak (Berbaroko lehen-dakaria) euskarak Durangaldean izan dauen bilakaera aztertuko dabe Plateruenean. Segidan Biko-teatro taldeak (Patxo Telleria eta Mikel Martínez) *Euskarazetamol* antzez-lana eskainiko dau.

Barikuan Terry Lee Hale-k eta Pettik zuzeneko eskainiko dabe. Berbaroko bazkideentzat eta Platerueneko lagunentzat doan da; gainerakoentzat sei euro. Zapatuan, barriz, 12:30ean Txiki Otaegin abiatuko den kantutrikipoteoaren ondoren bazkaritara batuko dira (txartelak antzokian dagoz salgai). Bazkalostean 20. urteurreneko ekitaldi berezia egingo dabe.

Azkenik, domeka eguerdian, umeendako tailerrak eta olinpiadak antolatuko ditue Ezkurdin. Urteurreneko tarta be banatuko dabe. 17:30ean, Plateruenean *Hitzen Lapurrak* bertsotxongilo ikuskizuna ikusi ahalko da.



Plateruena kafe antzokian aurkeztu eben urteurrenari lotutako ekimen sorta. Iban Gorriti

Hemendik aurrera jarraitu beharreko norabideari buruz egindako barne gogoetasak onak hainbat ondorio itzi dau. Batetik, Berbarok euskararen inguruko sentsibilizazioan "modu zuzene-

nagoan" jarduteko beharra ikusi dabe; "jarrera zirikatzaileagoa izan behar dau", jasotzen dau gogoetaren inguruko txostenak.

Horrez gainera, bazkideak (400dik gora) Berbaroren egune-

roko jardunera erakarri eta azpitaleen bitartez gazteei lotutako ekimenak ikasturte osora zabaldu gura ditue. Berbarok osatzen dabenen benetako elkarlana bultzatzea be badabe helburu. ■ J.D.

Gobernu Taldeak akordioak bete daizela eskatu dau Aralarrek

EAJk aurrekontuak negoziatu gura baditu, orain arte adostutakoak bete beharko dituela dinoe

Ikasturte barriaren hasieran "agenda politikoan lehentasuna izan behar daben gaiak" gogoratu gura izan deusaz Aralarrek Gobernu Taldeari. Legegintzaldi honetan egin barik gelditu den gai nagusietako bat "babestutako etxebizitzaren kudeaketa eredu definitzea" dela azaldu dabe Dani Maeztu eta Iker Urkiza zinegotziek. Asteon emondako prentsaurrekoan azaldu dabenez, Durango Eraikitzen Odi Bakarreko (58 etxebizitza) eta Faustegoenako (343 etxebizitza) lurak kudeatzen laguntzeko kanpoko aholkulari bat kontratatzea adostu eben: "Ez dakigu gai horretan Gobernu Taldea zeren zain dagoen".

Telefonia antenen kokapena erregulatuko dauen ordenantza osatzea plenoan onartu ebela eta oraindino egin barik dagoela azaldu dabe Aralarrekoek: "Hilabete honen bukaera ez badabe araudia aurkeztu, epaitegietara joko

Babeseko etxebizitzaren kudeaketa eredu definitu behar dela azaldu dau Aralarrek prentsaurrekoan

Telefonia antenen araudia osatzea plenoan onartutako gaia dela eta oraindino egin barik dagoela dinoe

Kultur eragileendako lokalak egokitzea preminazkoa delakoan dagoz Maeztu eta Urkiza zinegotziak

dogu". Maeztu eta Urkizaren berbatan, "bardin" gertatzen da Erralden parte hartzeko erabakia plenoan eztabaidatzeko hartutako erabakiagaz: "Atxakiarik ez egotea itxaroten dogu, eta gai hori hurrengo udalbatzarreko gai ordenean ikustea".

Landakoko parkinagaz eta TAOaren aldaketagaz be akordioak ez dabilzela betetzen salatu dau Aralarrek: "Landakoko parkinean TAO sistema biguna ezartzeko konpromiso publikoa hartu eben, eta gai hori buruz ez dakigu ezer".

"Aurrerapausorik" emoten ez dabilzen beste gaietako bat "lan eskaintza publikoko deialdia egitea" dela jakitera emon dabe. Gaineratu dabenez, "interinitateekin amaitzeko, 2009an deialdia egitea adostu genduen. Azpikontzazioen inguruko azterketa egin behar dabe".

Kultur arloan herriko eragile eta taldeen lokalen egoera

"arduratzekoa" delakoan dagoz bi zinegotziak, "Pinondo Etxearen erabileraren aldaketagaz eta liburutegi zaharra zena hutsik baina itxita egonda". Bi eraikin horreen erabilera definitu eta herriko eragileendako egokitzea "preminazkoa" dela jakin eragin dabe Maeztu eta Urkizak.

Akordioak

Herriarrendako "garrantzitsuak" diren gaiak "jeltzaleen ahalegin faltagaitik gelditurik" dagozela kritikatu dabe.

Aurreratu dabenez, "hurrengo 2010eko aurrekontuak Aralarregaz negoziatu gura baditue, jeltzaleek orain arte adostutako gaiak bete beharko ditue. Bestela, Gobernu Taldearen fidagarritasuna eta sinesgarritasuna eze-rezean geldituko dira". Aralarrek ez dau negoziatutako "adostutakoa ez dauenagaz betetzen eta fidatzekoa ez den talde bategaz", azaldu dabenez. ■ J.G.

Alokairuagaitik diru-laguntza jasotzeko izena emoteko aukera

Alokairuan bizi diren gazteei lagundu guran, diru-laguntza emongo dau Udalak hirugarren urtez. Eskararak egiteko epea irailaren 15etik urriaren 15a artekoa izango da. Udaleko Erregistro Nagusian (HAZ bulegoan) egin beharko dabe gazteek eskaera. Deialdian 18tik 35 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dabe. Ekimen horretarako Udalak 75.000 euroko diru-atala gordatu dau.

Gazteek irailaren 15etik urriaren 15era egin ahal izango dabe eskaera, Erregistro Nagusian

Diru-laguntza eskaera egiteko gazteek hainbat baldintza bete behar ditue. Eskatzaileak ezingo dau etxebizitza baten jabe izan. Diru-sarreraren mugaz gainera, alokairuaren kostua ezingo da hilean 750 eurotik gorakoa izan, eta etxebizitza ezin da azpierrendatua izan. ■ J.G.

Jaiei hasiera eta amaiera barrituta datoz aurtengo Sanfaustoak

Santa Anan burutzen dabilzen lanen eraginez, Udaletxeko balkoian ipiniko dabe Patxikotxu

Tabirako Saskibaloit taldeko ordezkariak jaurtiko dabe urriaren 3an, eguerdian, jaiei hasierako txupina, eta horren ostean ipiniko dabe jaietako ikonoa, Patxikotxu, Udaletxeko balkoian. Izan be, orain arte Sanfaustoetako gune nagusia izan dena, Santa Ana plaza, erabilgarri ez egoteak hainbat aldaketa eragin ditu jaietan. Jaiei amaiera be lekualdatu egin dabe, esaterako: Landakon, Kataluniako talde

Aurrekontuaren zati handi bat hartu dauen Asturiaseko El Sueño de Morfeo taldearen kontzertua nabarmendu dabe

baten piroteknia eta akrobazia ikuskizunaren ostean erreko dabe Patxikotxu. Igaz baino 30.000 euro gitxiago erabilita (345.000 euro osotara) antolatu ditue jaiak.

Herrian tradizino handikoa den *Zezenak dira* ikuskizuna egin ahal izateko, hesitu egingo dabe Santa Ana ingurua. Jaiaren beste gune nagusietako bat 19 txosnendako lekua izango dauen Zumar kalea izango da.

Musikari jagokonez, aukera zabala dago urriaren 3tik 18ra; The Bon Scott Band, Bizardunak, BertsoJazza eta txistu kontzertua, eta, aurkezpenean esan dabenez, "ekonomikoki apustu handia delako" nabarmentzekoa den El Sueño de Morfeoren urriaren 17ko kontzertua. ■ I.E.



Atzo goizean Durangoko Udaletxean aurkeztu zituen jaietako egitaraua eta kartela. I.E.

ELORRIO

Geu Be elkarteak etxebizitza soziala izango dau Nizeto Urkizu kalean

Durangaldeko pertsona gitxituei laguntzea helburu dauen Geu Be elkarteak etxebizitza soziala edukiko dau Elorrioren, Nizeto Urkizu kalean. Horrela, elkartean dagoen gazteek asteburuak bertan emon lekiez, eta hainbat ekintza egin; eurek eurretara baliatzeko ahalmena garatzea dau helburu asmo barri horrek.

Gitxituek eurek eurretara baliatzeko ahalmena garatu daie dau helburu Geu Bek

Proiektua Eusko Jaurlaritzak onartu dau, eta Elorrioren garatuko dabe Udalaren laguntzagaz. Printzipioz sei hilabeterako itzikio deuse etxebizitza. Eguneroko jarduera normalak egingo ditue, eta herriko egun seinatuuetan ekintzaren bat bultzatzen be saiatuko ei dira. Herriko dinamikan parte hartzea be badabe helburu Geu Be elkartekoek. ■ J.D.

OTXANDIO

Datorren astean hasiko ditu Zabaldun enpresak Urbiribilgo lanak

Udalak Zabaldun enpresari esleitu eutsazen herenegun Urbiribil ingurua aisialdi gune izan daiten egokitze lanak. Datorren astean hasiko ditue, eta hiru hilaren barruan amaitzea da asmoa. Lanak burutzera 266.000 euroko diru-atala bideratu dabe.

Urbiribilen parke bat zegoen lehenago. Urteak joan ahala zonalde ha zaharkituta geratu da. Oraindino hantxe dagoz sasoi batean ipinitako jarlekuak, baina belarrak ia erabat estali dau erreka ondoko eremua.

Beraz, jarleku luze eta barri bat ipiniko dabe, eta tarteka-tarteka kale argiak be bai. Ondoren, zuhaitzak landatuko ditue eta erreka inguru osoa berreskuratuko dabe. ■ J.D.

Erreka ondoa berreskuratu, zuhaitzak landatu eta jarlekuak ipiniko ditue, zonaldea errekuuperatzeko

BERRIZ

Frankismoaren biktimak gogoratuko ditue gaur

Berrizko Udalak aurtan be frankismoaren biktimei gorazarre egingo deutse; lore eskaintzaren ondoren, Durangoko Orfeoak emanaldia eskainiko dau

Berrizen ohitura bihurtu den legez, oroimenak bere bidea egingo dau gaur, beste behin, 1937ko irailaren 11ra: frankistek Felipe Urtiaga orduko alkatea eta Jose Agirre guardia hil zituen egunera. Horrekin batera, frankismoak eraildako berriztar denak gogoratuko ditue.

Lehenengo, 18:00etan, *Esklabotza frankismoa: errepi-deak eta fortifikazioak mende baldeko pirinioan* izeneko erakusketa zabalduko dabe Kultur Etxean. 20:00etan, Oroimenaren Bidearen ondoan lore eskaintza egingo dabe; segidan, Erralde afari-merienda eskainiko deutse bertaratuko direnei, Udaletxeko lorategian. Azkenik, 21:30ean toki berean, Durangoko Orfeoak abestuko dau.

Felipe Urtiagak, 1936ko uztailaren 18ko militarren kolpea

izan zenean, orduko gobernu demokratikoa defenditu eban. Alkatea zenez, herriko Defentsa Komiteburu izendatu eben, 1936ko azaroaren 29an udalbatzarrak berrantolatu arte. Gregorio Urkijok eta Jose Agirrek Defentsa Komite haretan lan egiten eben. Frankisten tropak 1937ko apirilaren 25ean sartu ziren. Felipe Urtiaga eta Jose Agirre 1937ko irailaren 11n hil zituen, fusilatuta, Derioko kanposantuan; Gregorio Urkijo be Derion fusilatu eben, eta Agustin Milikua eta Fermin Aranguena be errepresinoak hil zituen.

Berrizko Udalak, Gerediaga elkarteak eta Berriz 1936 Gogoratzen elkarteak antolatzen ditue ekitaldiak urtero. Igaz, esaterako, egun osoan zehar ekitaldiak antolatu zituen eta udalerrian jai eguna izan zen. ■ J.D.

18:00etan erakusketa zabalduko dabe, eta 20:30ean afari-merienda egingo dabe, Erralderen eskutik

1937ko irailaren 11n Felipe Urtiaga alkatea eta Jose Agirre herritarra fusilatu zituen indar frankistek



Bertako okela
Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

Aurretiaz prestatutako janariak
Deneriko CATERING zerbitzuak

Arriandi industrialdea
Tf: 94 681 44 00
48215 IURRETA/ Bizkaia



IURRETA

Jai Batzordeak osatutako Sanmigeletako egitaraua

Usadioari eutsiz, San Migel bezperan emongo deusie hasiera jaiari



Jai Batzordeko kideak, herriko plazan egin eben agerraldian. A.Basauri

ZALDIBAR

Euskal Western Elkartearen aurkezpenerako lehiaketa

Irailaren 12an egun osoan zehar eta 13 goizean egingo ditue Olazar futbol zelaia zenean Euskadiko lehenengo Western Lehiaketaren proba bereziak

Bihar eta etzi jokatu dabe, Olazar futbol-zelaia zenean, orain lau hilabete 20 kide sortu barri daben Euskal Western elkartek antolatua dauen lehiaketa.

Euskal Herrian lehenengoz izango dogu halako lehiaketa bat ikusteko aukera; taldeka zein bana-bana, behiak hesian sartzeko egingo dabe jinetek lan; Estatu Batuetako mendebaldeko behizainei buruzko filmetan ikusi izan doguzen rodeoetan egiten daben legez.

Lau behi sartu beharko ditue hesian zaldizkoek taldekako lehiari, eta behi bat hesian gordezten ahaleginduko dira bakarkako lehiari parte hartzen dabenak.

Bihar, irailaren 12an, 10:00etan egingo dabe Euskal Western elkartearen aurkezpen ofiziala

Tartean, Durangaldeko kideak be badaukazen elkartea aurkeztuko dabe lehenengo eta behin, irailaren 12an, 10:00etan, eta lehiaketako probak ez eze, country ekitaldia eta afaria be antolatu ditue.

Lehiaketan parte hartu ahal izateko, ezinbesteko den janzkeragaz etorriko dira Zaldibarko lehiaketara Katalunia eta Zaragozako zein Euskal Herrian trebatutako jinetak: kapela, praketa eta bota bakeroak. ■ I.E.

Aurreko urteetako ildoari jarraituz osotutako jai egitaraua aurkeztu dau Jai Batzordeak, asteon. Halan be, nobedaderik be izango da. Horretara, lehenengoz, tokiko esku pilota txapelketa barik, I. Frontenis Torneo a egingo dabe, eta Pablo Berasaluze VIII. Uda Binakako Esku Pilota Txapelketako azkeneko partidua be jokatu dabe. Gazte Asanbladaren eskutik, barriz, pinpon txapelketa jokatu dabe.

Umeendako eskaintza zabalak, musikak, dantzak, bertsoak eta denetariko txapelketek gozatuko dabe hutsik egingo ez dauen jai giroa, irailaren 25ean hasi eta urriaren 4a bitartean. Horreen artean, irailaren 18an, Pirritx eta Porrotx pailazoak, nekazaritza eta artisautza azoka eta herri bazkari eta afaria be izango dira.

Umeentzako apropos, Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia izango da irailaren 18an, Sanmigeletan

Jai Batzordeko kideek "aha-egin berezia" eskatu deutsen profesional mailako pilota partidua nabarmendu dabe: Olaizola II-Apraiz/Berasaluze VIII-Ibai Zabala. Pablo Berasaluze VIII. Uda Binakako Esku Pilota txapelketako finalekin bat egingo dau partidua,

urriaren 4an; "Pilota eskolari eskainitako laguntzagaitik eta egindako lanagaitik zelanbaiteko omenaldia izan gura dau", dinoe.

Bestetik, Iurretako Kofradien Arteko II. Herri Kirol Lehia, folklorea jaialdia, Durangaldeko rock taldeek eskainiko daben kontzertua eta urriaren 3an ospatuko den Mozorro Eguna aitatu ditue: Hiritribuek hartuko dabe herria.

Liher Aiartzaguena 23 urteko iurretarrak egindako kartelak iragarriko ditu jaiak

Sanmigelak aprobetxatuko ditue jendaurreko aurkezpenera egiteko sortu barri diren elkarrekin be: 'Sigi-Saga' Durangaldeko bizikletazale elkarrekin eta Anderebidetako emakume taldeak.

Ildo horretan, gogoratu dabe Iurretako Kirol Elkartea zenaren testigua hartzeko sortu den Harria herri-kirolen elkarrekin eta aurten jaiotako Kimuak aisialdi taldeak be 72.000 euroko aurrekontua izan daben Jai Batzordean lan egin eta parte hartu dabela. Udalak, bestalde, igaz jaietarako emondako 30.000 euroko diru-laguntza mantendu dau aurten.

Jaiak iragarriko dituen kartela Liher Aiartzaguenarena izango da aurten. Zazpi lanen artean aukeratu dau Jai Batzordeak 23 urteko gazte iurretarrarena. ■ A.B.

GARAI

Zubiaurreren omenaldia Durangon egingo dabe

Garain leku egokirik ez dagoela-eta, azkenean Durangon omenduko dabe herriko musikaria

Durangon burutuko da gaur, azkenean, Valentín Zubiaurreren omenaldia. Garaitarra zen musikaria, eta, horregaitik, herrian bertan omendu gura eben. Baina leku egokirik ezin aurkitu eta lekuz aldatu behar izan dabe.

Izan be, omenaldian Euskadiko Orkestra Sinfonikoak eman-kizuna eskainiko dau, Durangoko XX. Musika Hamabostaldiaren barruan. Hasiera batean Garai izan zen arren lehenengo aukera, antolatzaileek Durangoko San Agustín kulturgunean egitea era-

baki dabe; 20:00etan hasiko da eta sarrerak 10 euroan dagoz salgai.

Udalaren laguntza

Garaiko Udalak ekitaldi berezi hori bultzatu eta diruz lagundu dau. Udal ordezkariak gaineratu dabenez, herritarrak bertara joatera "animatzen" ditue. ■ M.O.

Garaitarra zen musikaria eta, horregaitik, herrian bertan omendu gura eben

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

DIBA

KOOPERATIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

Arrike

Liburudenda

Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

"BODEGUILLA"

TRAÑA-MATIENA

Tfn. 681 43 85

EGIA AROZTEGIA

EBANISTERIA

ZUZENEKO SALMENTA

Sukaldeak - Ateak - Armarriak neurria - Oholtzak

Tel. eta Faxo: 681 77 46
Ereoa: 620 25 65 - Mugikorra: 989 70 37 54

Tolosa kalea, 54
48200 DURANGO



**DANTZA
IKASTAROAK
DURANGO**

URRITIK EKAINERA
ZATOZ DANTZARA!
DANTZAN IKASTEKO BESTE MODU BAT

- Plazako dantzak: pasocoblea, baitsa, jota, porrusalda, jauziak, polka, e.a
- Aiko irakasbidea:
 - tradiziozko dantzakeran oinarritua
 - mailakatua eta progresiboa
 - ergonomikoa eta naturala
 - musika eta mugimendua uztartuz




DURANGON, aurkezpen tailerra
irailaren 15ean, asteartea
(doan eta izena eman gabe),
19:30-21:00
Plateruena kafe antzokian.

90€ IKASTURTE OSOA.
PLAZA MUGATUAK.
Informazioa + izen-ernatea:
www.aikotaldea.com
edo 646 336 147

IKASTAROAK TAILERRAK

Izen ematea: irailaren 14tik 18ra
Lekua: Pinondo Etxea
(Informazio bulegoa)

Ordutegia:
Astelehenetik ostegunera: 10:00-14:00 / 17:00-19:00
Ostiralak: 10:00-15:00

Tf 94 603 00 30
Fax 94 620 09 67
informazioa@durango-udala.net
Pinondo plaza, 1
DURANGO

ARTE ADIERAZPENA
HARI ARTISAUTZA
MUSIKA ADIERAZPENA

www.durango-udala.net

duran...go!
goazen!



DURANGO
Udala • Ayuntamiento



MALLABIA

Igazko herri-kiroletan hainbat gazte taldeka parte hartu eben. Kepa Aginako

Gazte Eguneko egitaraua ekitaldiz gainezka dator

Bertso-bazkaria, kirol jarduerak, musika emanaldiak, Miss eta Mister aukeraketa eta morokil-jana antolatuko ditue zapatuan herriko gazteek

Herriko gazteek egun osoko egitaraua antolatu dabe zaturako. Gazte Egune-ko ekitaldiei eguerdiko 12:00etan ekingo deuse, eskupilota eta pala txapelketako finalak jokatu.

Eguerdiko 14:30ean bertso bazkarian jardungo dabe Beñat Ugartetxea eta Aitzol Barandiaran bertsolariak.

Herri-kiroletan parte hartu gura dabenek 17:30ean hitzordua izango dabe. Mallabiko gazteak nor baino nor arituko dira egun horretarako prestatuko ditueen probetan. Taldeak osatuko ditue, eta aizkoran, txokor batzen, txinga eroaten, harrijasotzen... elkarren kontra arituko dira. Bazkaria eta herri-kirolak egiteko eguraldiak zer egingo zain dagoz; ona bada, plazan izango da, eta txarra bada, frontoian.

Eguerdiko bertso bazkarian Beñat Ugartetxeak eta Aitzol Barandiaranek parte hartuko dabe

Arratsaldeko 17:30etik aurrera Mallabiko gazteak herri-kirol saioko probetan lehiatuko dira

Goizaldean herriko Missa eta Misterra aukeratu ditue; ondoren, morokila jango dabe indarrak barritzeko

Arratsaldeko 19:30ean bertso-trikipoteoan herriko giroa alaituko dabe.

Gauerako be hainbat ekitaldi aurreikusi ditue. 22:00etan kontzertua ekainiko dabe Kultur-Lee eta Lindane taldeek. Jarraian, erromerian dantzan egiteko aukera izango dabe bertaratutakoek.

Abestea gustuko dabenek be izango dabe aukerarik. Goizaldeko 02:30ean karaokea jarriko dabe, herriko abeslarien maila zelakoa den aproban jartzeko.

Miss eta Mister

Goizaldean herriko neska-mutil ederrenak aukeratu ditue, Miss eta Mister Mallabia lehiaketan. 04:00etan morokil-jana izango da. Igaz tonbola antolatu eben, baina aurrean denporaz larri ibili direnez kamisetak atera ditue sos batzuk ateratzeko esperantzaz. ■ P.M.

ATXONDO

Euskal presoek argazki eta kartelak kentzeko agindua

Abuztuan, hirugarrenez, euskal presoek aldeko kartelak kentzeko agindua jaso dabe Udalean

Hogeitalau orduko epea emon eutsen Ertzaintzak Udalarari, herrian zehar zein Udaletxean dagozen euskal presoek herriratzeari aldarrikatzen dabenean kartel eta pintadak kendu eta ezabatzeko. Ekainean, uztailean eta abuztuan, hilean behin joan da Ertzaintza agindu hori jasotzen dauen idatzia Udaletxean aurkeztera.

Udaletxeko balkoitik zintzilikatutakoak kendu ditueela azaldu dusesue Udalean, baina herrian zehar dagozen kartel eta pintaketak kentzeko baliabiderik ez daukiela erantzun ei deusie poliziari. Ertzaintzak aurkeztu dauen idatzian zehazten denez, agindua betetzen ez dabenean erakundeak zigortu egin lekiez eta ezabaketaren gastuen kargu egin beharko dabe.

Euskal Herriko beste hainbat elkarte, taberna eta erakundetan egin dauen legez, euskal presoek argazki eta kartelak "terrorismoa goratzeko delitua" izan leiteke zela dinon idatziaren bitartez agindu deusio Ertzaintzak Atxondoko Udalarari aldarriok ezabatzea. ■ I.E.

Ekainean, uztailean eta abuztuan joan da Ertzaintza Udalerara, kartelak kentzeko agintzen dauen idatziagaz

Herrian zehar dagozen kartel eta pintaketak ezabatzeko baliabiderik ez daukiela erantzun deusie Udaletik

MAÑARIA

Dantzari kultur etxe bilakatu ahal izateko diru-laguntzak lortu guran

Igogailu bat ipintzea gura dabe kultur etxe izango dena eraikitzeko lanen bigarren fasean

Espainiako Gobernuak tokiko inbertsinoetarako urte hasieran zabalduetako diru-laguntzen atal batez konpondu dau Mañariako Udalak etorkizunean herriko kultur etxe izango den Dantzari eraikinaren teilatua. Eraikin horretan egin beharreko lanen lehenengo partea izan da hori, eta, Udalean jakinarazi dabenez, datorren urtean jarraituko dabe egokitzen: igogailu bat beharrezko ikusten dabe kultur etxe izango denean.

Lan horreekin finantzatu ahal izateko, irisgarritasuna hobetzera bideratutako diru-laguntza jasotzea itxaroten dabe Udalean. Azaldu dabenez, Dantzari lanen bigarren faseari datorren urtean ekitea aurreikusi dabe Udal Gobernuan.

Espainiako Gobernuak urte hasieran eskaini eban diru-laguntzagaz konpondu eben eraikineko teilatua

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arrotzak hiltzen ditugu

Iturriko, 42 - 2. ed. - Tt. / Fax: 94 622 57 74 / 658 75 72 79 - 48240 BERRIZ

BILBAO ASEGURUAK

Jabier Rueda

CATALANA OCCIDENTE

CENTRAL FORESTAL

35 Urte Euskal Basoen Zerbitzura

Smurfit

Nervión

Pinuarekin egin daitezkeen paperik onenak

Smurfit

ibersaac

Eta azkenik paperezko zakurik ederrenak

IZURTZA

Babeseko 15 etxebizitza eraiki gura ditue frontoi ondoan

Etxeak eraikitzeko Hirigintza Hitzarmena plenoan eztabaidatuko dabe gaur



Udal arduradunek proiektuak izurtzarrendako daukan “garrantzia” nabarmendu dabe. I.E.

Herrian egingo diren lehenengo babeseko etxebizitzak eraiki ahal izateko lurrak eskuratu gura ditu Udalak. Azkeneko Hirigintza Batzordean frontoi ondoko lurrak erosteko hitzarmenaren txostena aurkeztu eben. Gaurko udalbatzarrean oniritzia jasotzen badau, 1.600 metro koadroko lurretan babeseko 15 etxebizitza eraikiko ditue. Lorea Muñoz alkatea-

Frontoi ondoan, 1.600 metro koadroko espazioan eraiki gura ditue babesekoak izango diren etxebizitzak

ren berbatan, izurtzarrendako “proiektu garrantzitsua” da: “Orain arte urak hartu leikezen lurrak geunkazen eta arau subsidiarioengaitik leku horreetan ezin izan dogu etxebizitza proiekturik martxan jarri. Hitzarmen hau sinatuta herriko lehenengo babeseko etxebizitzak eraikiko doguz”. “Hitzarmen horren bitartez, herriko gazteek ez dabe kanpora joan beharko etxebizitza bila”. ■ J.G.

ABADIÑO

Hipermerkatu ingurua aisialdi gune bilakatzeko lanak egiten dabilz

Abuztuan hasi zitueen eta bi edo hiru hiletan emon gura ditue amaitutzat egin beharrekoak

Herrian egiten dabilzen obretan sortzen diren lur soberakinak (Muntsaratz auzoko etxebizitzetako, esaterako) berrerabiltzeko modua zirela Matienako Eroski inguruan egiten zebilzen lurpila-ketak azaldu euskuen, orain hila-bete batzuk, Udalean. Asteon jakinarazo dabenez, baina, lursail hori aisialdirako

gune bilakatzeko lanetan dabilz hipermekatu inguruan. Abuztuan hasi ziren Eroski hipermerkatuaren aldamenean aisialdirako gunea sortzeko lanak burutzen. Gobernu Taldeak aurreikusi daue-nez, hilabete bi edo hiruan amaituta egongo dira burutu beharreko lanak, eta erabilgarri aisialdirako espazioa.

Oinezkoendako bidegorria, haurrendako jolas-gunea, aintzira eta zaharrek ariketa fisikoa egin daien prestatutako gunea izango dira, besteak beste, berdegune barri horretan.

Biribilgunea egiten
Bestalde, atzo hasi ziren Matienako Trañabarren kaleko trafikoa (herriguneko industriguneetara doazen kamioiena, batez be) arintzea helburu daben biribilgune-ko lanak. Trafikoa astirotzeko goruneak be ipiniko ditue. ■ I.E.

Ariketa fisikoa egiteko makinak be ipiniko ditue Eroski hipermerkatu inguruan sortuko daben berdegunean

DURANGO

Etorkinendako euskara ikastaroak

AISA etorkinei zuzendutako euskara ikastaroetan parte hartu gura dauenak irailaren 30era arte dauka izena emoteko aukera, Udaleko Euskara Sailean. Matrikula doakoa izango da. Ikastaroa urriaren 1ean hasi eta abenduaren 16an amaituko da. Ikastaroa 60 ordukoa izango da guztira, 30 egunetan banatuta. Eskolak astelehen, martitzen eta eguazte arratsaldetan izango dira 19:00etatik 21:00etara. Ikastaroan AISA programaren lehenengo liburuak eta bera-riazko hiztegi irudidun bat erabiliko dira. Azkeneko hori doan emongo jake ikasleei. Ikasle kopurua mugatua da: 12 gitxienez eta 18 gehienez. Atzeritik etorritako edonork parte hartu daike, beti be 16 urte edo gehiago badaukaz.

Lekeition atxilotutako lau gazteak kalean dira, baldintzapean

Martitzen gauean 21 eta 23 urte bitarteko lau durangar atxilotu zituen Ertzaintzak, gau haretan bertan Lekeition kontenedoreak erretzea leporatuta. Gernikako Epaitegian deklaratu eben lau gazteek atzo, egunean. Goizean hasi eta eguerdiko 15:00ak inguru arte iraun eben deklarazioek. Fiskalak badaezpadako espetxeratzea eskatu arren, epaileak baldintzapeko askatasuna ezarri eutsen lau gazteei, 15 egunean behin epaitegira joateko baldintzagaz.

ABADIÑO

AHTaren aurkako hamar partaide identifikatu zitueen martitzenean

‘AHTaren aurkako udako martxa’ ekimenean parte hartzen zebilen 10 kide identifikatu zitueen Ertzaintzak eta Guardia Zibila, martitzenean, Abadiñoko AHTaren obretatik pasatu barri zirenean. Martxako partaideak Durangorantz abiatu eta Tabira auzora heldzeagaz batera geldiarazi zitueen. Eguaztenean Angiozarretetik irten eta Durangon amaitu zen martxa. Lehenik eta behin Euskotreni eta Renferi desobedientzia zibila erakutsiz, Eubaraino Euskotrenera igo ziren, ordaindu barik. Hortik aurrera trazatuaren ibilbideagaz paraleloan segitu eben Zornotzara heldu arte.

Haur zein helduek, denek gozatu zitueen Andra Mariak



Irailaren 8an izan diren mezak eta dantza emanaldiak emon ditue aurtengo Andra Maria jaiak amaitutzat Muntsaratz auzoan. Joan zen barikuan hasita, askotariko jai-eskaintza pres-tatu dabe auzoan, adin guztietako herritarrentzat aukeran. Goi-ko argazkian hartutakoa lako irudiak asko izan ziren joan zen zapatuan Muntsaratzen: Mozorro Eguna eta haurrentzako anto-latutako ekitaldien eguna izan zen jaietako bigarrena egun hori. Gaztetxoak ilusinoz ibili ziren auzoan ipinitako gaztelu puzgarrietan hara eta hona.

ELORRIOKO JAIAK 09



BERBAZ >



Argazkia: Iban Gorriti

Inma Eskribano •

■ Erizaina.

■ Kainaberako kidea.

“Nikaraguan ezagutu dodan jenteak maitemindu egin nau”

Kainaberak ‘Etxe duin bat’ proiektua bultzatzen dihardu Mozonten (Nikaragua)

Jailetan antolatzen eban ekitaldi baterako laguntza beharabela-eta, Kainabera gobernu kanpoko erakundeari laguntzera hurreratu zen. Halantxik emon zituen Inma Eskribanok lehenengo pausoak Kainaberan. Harrezkero hamarkada bat baino gehiago pasatu den arren, elorriar honek gogotsu darrai lanean. Udan, Mozonten (Nikaragua) izan da.

‘Etxe duin bat’ proiektua zertan datza?

Orain dela bost edo sei urte Nikaraguako iparraldera joan nintzen osasun arloko proiektu batera. Hango egoera eta bizimodua ezagutzean konturatu ginen, etxebizitzaren egoera konpondu beharra zegoela osasun arloko gaixotasunak prebenitzeko. Diru gitxigaz gauza asko egin zeitekeela konturatu ginen. Bidaia haretatik sortu zen proiektu hori martxan jartzeko ideia.

Txagaz gaixotasuna da arazo gehien sortzen dauena.

Guretzat gaixotasun ezezaguna den arren, txagaz gaixotasuna etxeetako hormetan dagoen zomorroek eragiten dabe. Malaria eta dengea be arriskutsuak dira. Gaixotasun bi horrek eltxoek eragiten ditue. Ate eta leihoetan sareak jartzen badoguz, ez dira etxetara sartzen.

Ur edangarria izatea be lorpen handia da.

Ez daukie urik etxean, eta erreka eta putzuetara joan behar dabe bila. Euria egiten dauenerako kanalizazinoa eraiki dogu, ura biltegi batera joan daiten eta kloroa botatzea errazagoa izan daiten. Sabeleko gaixotasunak ekidin leitez horretara.

Mozonten izan zara udan.

Bai. Proiektuaren jarraipena egiten gabilz. Bi etxebizitza amaituta dagoz eta akats batzuk topatu doguz. Garran-

tzitsua da jarraipena egitea, etxeak eginda dagozen unean sortu leitekezen arazoei irtenbidea emateko. Sareak erdoildu eta apurtu egin ziren. Konturatu ginen erabilitako materiala ez zela egokiena. Orain beste leku baten lau etxebizitza barri egingo doguz. Egoera txarrean eta oso urrin bizi diren arren, jente langile eta jatorragaz topo egin dogu.

Zelako etxeak dira?

Etxeak adobez egiten ditue. Lan gogorra da; batez be, ur faltagatik. Halan be, merezi dau eurek egin daiezen. Eurek egitearen harrotasuna asko baloratzen dabe.

Zelako gizartea topatu dozue?

Hiri edo herri batera joatea oso ezbardina da. Hirietan langabezia handia daukie. Herrietan nekazaritzatik bizi dira eta hareek beti bizi izan dira krisian. Orain ez dagoz txartoa-go. Krisiaren barri entzuten dabe, baina eurentzat ez da

barria. Artoa eta babarrunak ereiten ditue, eta horregaz bizi dira. Jentea oso jatorra da. Maitemindu egin nabe.

Elkartasun Eguna antolatuko dozue domekarako.

Egun horretako egitarauagaz ametsak islatu gura doguz. Sarritan proiektuak pertsonen ametsetatik sortzen dira. Bizitza ametsetan datza. Jenteak ametsetan egiten ez badau, ez dago bizirik. Panel informatiboak jarriko doguz.

Beste zein proiektu darabilz esku artean elkarteak?

Nikaraguan etxe duinen proiektua daukagu. Kolonbian eskoletako jantokiak bultzatzen doguz, eta presoek egingo dako bitxiak salgai jartzen doguz. Tanzanian Elorrioko abade bat dago, eta zeozertarako dirua behar dauenean deitu egiten deusku. Ume erru-siarrekin be bagabilz beste proiektu batean.

■ Jone Guenetxea

“Diru gitxigaz gauza asko egin leiteke etxebizitza duinak izateko”

“Nikaraguako baserritarrentzat krisia ez da gauza barria”

EKONOMIA[>]

>ABADIÑO

Langile bat hil da makina batek azpian harrapatuta

Beharginak hiru urte eta erdi zeroazen Abadiñoko Secor enpresan beharrean



Secor enpresa Eroski merkatalgunearen ondoko poligonoan dago Murueta auzoan. Iban Gorriti

Langile bat hil zen eguaztenean Abadiñoko Servicio de Corte Producto Laminado Secor enpresan, bobina batek harrapatuta. Basauriko 36 urteko beharginak hiru urte eta erdi zeroazen enpresa horretan lanean. Istripua eguazten eguerdian gertatu zen Murueta auzoan, Eroskiko merkatalgunearen ondoko poligonoan. Oraindino argitu ez diren arrazoiengaitik, langilea bobina batek harrapatu eban. Momentu horretan enpresan lanean dihardueen bederatzi langileetatik zazpi zegozen beharrean. Osalan istripuaren arrazoiak aztertzen dabil.

CCOO sindikatuak salatu dauenez, makina horrek ez zeukan segurtasun hesirik, ezta gel-

CCOO eta LAB sindikatuek kontzentrazinoa deitu dabe, gaur 12:00etarako

Bobina batek harrapatuta hil zen eguazten eguerdian 36 urteko basauritarra Abadiñoko enpresan

dialdi automatikorik be. Enpresak "beharrezkoak diren segurtasun nerriak hartu ez izana" be kritikatuta dabe sindikatukoek.

Kontzentrazinoa

CCOOk eta LABek jakitera emon dabenez, gaueguerdiko 12:00etan kontzentrazinoa deituta dago Secor ondoan dagoen Lantegi Batuak enpresan, langile horren heriotza salatu eta segurtasun neurriak bete daitezela eskatzeko. ELAK 11:30erako deitu dau kontzentrazinoa.

CCOOn berbatan, "krisiaren atxakian segurtasun neurriak gixitzen dabilz eta horixe da Secor enpresan egin dogun elkarretartetzearen eskatuko doguna". ■ J.G.

Abadiñar eta izurtzarrak be +Dendak elkarteko kide

Bere eragin eremua zabaldu dau +Dendak mekatarari eta ostalari elkartek. Durango eta Iurretako bazkideez gainera, uztailetik aurrera Abadiño eta Izurtzako kideek be parte hartu ahal izango dabe.

Elkartekoek adierazo dabenez, uztailean estatutuak aldatu zitueen, bi herri horreetako mekatarari eta ostalariak, gura izanez gero, kide izan daitezzen.

+Dendakeko ordezkarien berbatan, aldaketa ofizialagaz administrazioaren aurrean bi herriotako mekatarien interesak defendatzeko aukera izango dabe: "Herri txikiak dira elkarre bat sortzeko", dino Alberto Santos mekataritza teknikariak.

Abadiñoko sei bazkide eta Izurtzako bazkide bat dira +Dendakeko kide egin direnak. Izurtzako eta Abadiñoko mekatariei deialdia egin deutsee +Dendaketik, gura izanez gero, elkarrean parte hartu daien.

Estatutu aldaketa

Estatutuaren aldatu dabenez, beste gauzetako bat +Dendak interes publiko eta sozialeko elkarre izendatzea izan da. Orain arte ezarritako helburuak "zabaltzea" dakar horrek. Lan eta formakuntza arloetan jarduteaz gainera, ingurumen kudeaketan be eragin gura dabe. "Orain arte be arlo horreetan jardun dogu, baina orain errekonozimendua daukagu, eta ekimen gehiago antolatu geinkez. Administrazioaren aurrean hitzarmenak adosteko errekonozimendua daukagu", dino Santosek. ■ J.G.

Estatutu aldaketagaz +Dendak interes publiko eta sozialeko elkarre izendatzea erabaki dabe

kolaborazinoa



Ainhoa Iturbe
ENHE sindikatua

Lópezen lanpostuak

Onartu berri dute Patxi Lópezek eta jaurlaritzakideek krisiari aurre egiteko plan berria, 10.000 langabetuk sei hilabetetan lana izan dezaten 63.800.000 euroko dirutza; hau da, 6.380 euroko laguntza langabetu bakoitzeko; lehengo milio bat pezeta baino zerbait gehiago. Horrekin sei hilabetez lanean ipiniko ditu 10.000 pertsona, eta gero etxera, jakina. Kontuan izanik langileen perfila, batez beste, mileurista deritzonarena dela, 380 euroko propina emango die.

Eta horri krisiaren aurkako plana deitu diote. Izen ederra, izen hutsala. Sei hilabete barru beste 10, 20 edo 30 milioi euro joan beharko dira langabeziara itzuli diren horien guztien paroa ordaintzeko.

Krisialdia pasatu nahi dute, krisiari aurre egin gabe, hagineta mina eduki eta ordu batzuk pasatzeko Nolotil hartzen den bezalaxe. Baina hagin minduak hor dirau.

Baserritarrok badugu hain innotatzaile, hain berriatzaile, hain moderno ez den plan bat, krisiaren korapiloa askatzen lagunduko lukeena. Oso sinplea da: azken hamar urteetan, Bizkaian bakarrik 5.000 lanpostutik gora galdu dira baserri munduan; zuzeneko lanpostuak. Lópezek eta konpainiak nahikoa izango lukete Euskal Autonomia Erkidegoko ospitale, eskola eta jaten ematen duten leku publiko guztietan bertako jatekoa eta sasoikoa emateko plana martxan jartzearekin. Badakizue zenbat eta zenbat jateko ematen den diru publikoarekin egunero-egunero?

Horrekin errez sortu daitezke 10.000 lanpostu baino gehiago, eta diru gutxiagorekin. Betirako lanpostuak, gainera, ze jan sei hilabetez baino gehiago jaten dugu, krisiak uzten badigu behintzat...

Baserritarrok badugu krisiaren korapiloa askatzen lagunduko lukeen plana

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

EXCAVACIONES JON

MOTA GUZTIETAKO INDUSTRIAK
HONDAKISIHATIA

Jon Garitagoitia Gallastegui

PROYECTOS • DISEÑO • EJECUCIÓN • MANTENIMIENTO

Tel. 946 17 28 04 • FAX 946 17 28 05

KULTURA[>]

KONTZERTUA >



Namek Planet kontzertu berezienean

Argazkia: Peio Agirre

kasketak amaitzeko Madrile-ra doa Namek Planet talde elorriarreko gitarra-jotzailea, eta, banaketa horren aurretik, laukote moduan duten azkeneko kontzertua da irailaren 12an, 23:30etatik aurrera, euren herriko txosnagunean eskainiko dutena. Orain arteko kontzertuen artean bereziena izango dute biharkoa: euren herriko jaietako kontzertu nagusian eta Su Ta Gar talde handiagaz eskainiko dute.

Iaz Mañariko gazteek antolatuzuten III. Maketa Lehiaketa irabazi eta gero, lehenengo grabazioa egin zuten Namek Planet osatzen duten lau gazteek, eta euren kantak hainbat zuzenekotan jotzeko aukera izan dute ordutik.

Bereziki prestatuta

Ez da lehenengo aldia euren herrian, Elorri, joko dutena: iaz ere jo zuten. Lehenengoa ez, baina bai orain arteko bereziena. Taldekideek eurek esan digute, azken egunetan bereziki prestatu duten kontzertua dela Su Ta Gar talde eibartarragaz eskainiko dutena. Euskal musikako talde handienetarikoa den taldeagaz eszenatokia konpartitzea bera berezia da lau musikari gazteentzat.

Oraingoz laukote moduan zuzenean joko duten azkeneko aldia da biharkoa. Gozatuko dutela gauza segurua da, eta lagun eta herrikide asko entzun eta ikusten izango dituztela ere bai. ■ I.E.

12 Durangoko Musika Hamabostaldia

Eguaztenean aurkeztu dute, Durangoko Udalean, datozen asteetan hainbat musika emanaldi ekarriko dituen Durangoko XX. Musika Hamabostaldia.



13

Safet Bijelic artistaren lana

Orain hamarkada bat Durangora heldu zenetik ziharduen Safet Bijelic eskulturgile kroaziarrek bere lanak sortzeko tailer bila. Jadanik badauka.

MUSIKA > JAIALDIA

XX. Musika Hamabostaldia ospatzeko, askotariko doinuak

Durangoko Musika Hamabostaldiaren hogeigarren edizioa ospatzeko antolatzaileek asteon aurkeztu dituzten bost kontzertuetan lehenengoa gaur 20:30ean hasiko da San Agustinen; Valentin Zubiaurre musikari garaitarraren lanak interpretatuko ditu Euskadiko Orkestra Sinfonikoak



'Percutiendo' ikuskizuna ekarriko du Valentziako Amores taldeak, urriaren 4an.

Hogeigarren edizioa du aurtengoa Durangon antolatzen den Musika Hamabostaldia, eta bost musika klasi-ko emanaldi antolatu dituzte urtemugarako. Irailaren 11n, gaur, izango da lehenengoa, eta urria eta azaroan gainerakoak.

Gaur, 20:30eko emanaldirako, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kontzertu oso berezia da aurreikusi dutena: Valentin Zubiaurre musikari garaitarraren *Ledia*, *Ecos de Oiz*, *Fernando el emplazado* eta *Sinfonia en Mi* piezak eskainiko ditu Euskadiko Orkestrak, Zubiaurreren omenaldia izango den hitzorduan. Izan ere, euskal musikarien lanen bilduma osatzen dihardu EOSeK, eta Zubiaurreren lanaren interpretazioaren grabazioa egin berri dute.

Musikaren bost alderdi

Alfredo Sainz eta Xabier Arana antolatzaileek eta Natxo Martinez zinegotziak eguazten honetan aurkeztu dituzte Durangoko Musika Hamabostaldiko datozen lau emanaldiak. Orain hogeitau programagaz hasi zirenetik izan duten helburu beragaz, musika klasi-koaren alderdi, formatu eta estilo askotarikoen erakusgarri izan daitekeen programa osatzea bilatu dute. Horrela, perkusio talde bat, saxo laukote bat, *La leyenda del beso* Zarzuela eta Leioa Kantika koralaren ikuskizun berrienak osatzen dute aurtengo egitaraua.

Musikaren alderdi dibertigarri eta familiako adin guztientzako aproposenean, Valentziako Amores perkusio taldea izango da urriaren 4an, 18:00etan, San Agustinen, *Percutiendo* ikuskizuna eskaintzen. Eguneroko objektue-

Frantziako saxo laukote bat gonbidatu dute urriaren 31rako

Euskadiko Orkestraren eta Hamabostaldiaren omenaldia Zubiaurreri

kin musika zelan egin daitekeen erakusten dute valentziarrek ikuskizun oso bisualean. Alfredo Sainz Musika Eskolako zuzendariak nabarmendu duenez, 8 urtetik gorako umeek asko gozatu dezaketen emanaldia da *Percutiendo*.

Urriaren 31n, bestalde, Frantziako Ellipsox Sax Quartet etorriko da Bartolome Ertzilla Musika Eskolako areto nagusian kontzertua eskaintzen. Kamera musikaren nazioarteko hainbat sari eskuratu duten lau musikari gazte dira laukote honetakoak.

Azaroko agendan apuntatzeko beste ikuskizun bi ere aurreratu dituzte Hamabostaldiko antolatzaileek; tartean, Andeka Gorrotxategi tenore izango duen Zarzuela Landakon eta Leioa Kantika koralaren emanaldia. ■ I.E.



Ikuskizun berria aurkeztuko du Leioa Kantika koralak.

GEURE DURANGALDEA



Jose Martin Urrutia, 'Txotxe' Irakaslea

Ikazkinak

Badira hogeitabost urte Donostiko Zinemaldian *Tasio* filma aurkeztu zela, eta egutegiak bere etengabeko aritmetika jarraituz horren berri ekarri digu. Gehiengoa bat etorri da—sariaz gain, zilarrezko maskorra eskuratu baitzuen—euskal zinemarako ekarpen garrantzitsua izan dela, espero ez zuten ekarpena filmatu zutenean.

Ustekabean abuztuko azken egunetan pelikula filmatu zuten parajeetan egon naiz, eta, urtemuga horren kronikak irakurritz, poztu egin nau horrelako ekarpenak gure zinemagintzara ikazkin baten eskutik etorri izanak.

Batzuek Akira Kurosawa handiaren Dersu Uzalarekin parekatu dute *Tasio*, eta, nahiz eta Urbasako basoak ez izan Siberiako taiga amaigabea, pertsonaia biek hilzorian dauden bi bizimoduren berri ematen digute; bata ehiztaria eta bestea ikazkina. Euren lanbideak, inguruak, gizakiak era batean zizelkatu ditu, eta naturak bere baitan dituen baloreekin euren azalak marraztu: berdintasuna, askatasuna, aniztasuna, gozotasuna,...

Gauean, oraindik ere Ameskoetan, eta txupitoari botatzen dioten izotzari begira eta bueltak emanez, ezker zein eskuinera zera etortzen zait burura: ziur aski lelokeri bat da askorentzat, baina zergatik ez dugu jantzen *Tasio* eta Dersuk erakutsitako baloreekin hemendik hiru hilabetetara agertuko den ikazkin hori.

Papa Noel euskaldun mediatikora, kontsumismora eta horrek bere baitan dakartzan baloreetara murgildu nahi gaitu gupidarik gabeko gizarte neoliberal honek. Akaso buelta larregi eman diot izotzari edo txupito larregi edan ditut, baina, zer demontre, gora *Tasio* eta Dersu Uzala!!

MUSIKA > KONTZERTUA

Lorategiko haizetarako kontzertuak Berrizen

Irailaren 18an Mongo musikari durangarrak joko du Berrizko Udaletxeko lorategian

Tartean abuztua izan da eta ete- naldi laburra izan dute Berrizko Udaletxeko lorategian uda hone- tan antolatzen hasi diren zuzene- ko musika emanaldiek. Datorren barikuan, irailaren 18an, Mongo durangarraren musika da lorate- gian entzungai izango duguna.

Datorren barikuan, 21:30etik aurrera joko du Lorategian Mongok

Mongo eta bere pianoa zein zuzenekoetan laguntzen duen musikari taldea izango dira irailaren 18an, 21:30ean hasita, Uda- letxe aurrean altxatuko duten eszenatokian bertaratzen dire- nei blues doinuak eskaintzen. Izar eskolako ekoiztetxeagaz gra- batutako diskoa aurkeztu zuen urtarrian, eta bertan bildutako kantak aurkeztuko dituzuzenean.

Familiaren herentziaz jaso- tako pianoa jotzen oso gaztetan hasi zen Mongo, eta ordutik doi- nu latinoak, bluesa, jazz, bossa, eta beste hainbat estiloko musi- ka sortu izan du. Adin guztietako- koen gustoko izaten den musika mota egiten duela esaten du Mon- gok: helduek bakarrik ez, umeek ere gozatzen dituzten doinuak sortzen ditu durangarrak.

Abuztuko atsedeenaren aur- retetik, jatorri askotako musikariek osatzen duten Danba taldearen munduko musiken emanaldia izan zen Lorategiko haizetarako kontzertuetan dantzarako gonbi- ta egin zuena, eta tartean Aiar- tzuena tronpeta-jotzaile duen UNHEK ere jo zuen bertan. ■ I.E.

Helduentzako zein haurrentzako apropos diren musika doinuak

ARTEA > ELKARRIZKETA

“Etenik barik ideiak eta lanak proiektatzea da sortzailearen bizimodua”

Berrizko eskultura lehiaketara zer lan aurkeztu pentsatzen dabil **Safet Bijelic**. Durangoko Liburu eta Disko Azokako egunetan Museoan ikusgai ipiniko duen bere lanaren bilduma osatzen ere badabil

Urte amaieran Durangoko Arte eta Historia Museoan izango dozu erakusketa, eta Durangoko beste hainbat lekutan be badago orain zure lana ikusgai. Bai, Durangoko Santa Anan dagoen Nualan Gunea dendan salgai dagoz nire lan batzuk. Dekorazino dendetan be badaukie nik eginiko hainbat pieza.

Azokarako zer zabilz prestatzen? Nire lanaren alderdi guztiak erakutsi gura ditut Durangoko Museoan ipiniko dodan erakusketa horretan. Dekorazinoarako egiten ditudan lanak –heldulekuak, ispiluak...– eta urteetan landutako eskulturak bildu gura ditut erakusketa horretan.

“Egiten ditudan lanen bilduma osoa gura dot abenduko erakusketan bildu”

“Lankideek txatarra ikusten eben lekuan figurak ikusten nituen nik”

Metala da gehien lantzen dozun materiala.

Halan da, bai, baina bestelako lanak be egiten ditut. Metalagaz eta nik egindako hauts eta zuntzekin egindako masa plastikoa egiten dot lan. Nire lane-tako lehengai nagusia, baina, metala da, bai.

Noiz hasitakoa zara metalagaz eskulanak egiten?

Bizi guztia daroadala esan leiteke: txikitan nire aitak zelan egiten eban lan ikusten emon nituen ordu asko, aitaren prozesu sortzaileak ikusten, eta eskolan be artearen inguruko ikasgaiak edukitzen genduzen. Sormenaren inguruko kultura oso zabala jaso neban Kroazian; oi halagaz, zuragaz eta beste hainbat lehengaigaz be esperimentatzen genduen eskolan. Dena dela, nire aitaren lanagaz konparatuta oso desbardinak dira nik egiten ditudan lanak.

Oso txikitatik esperimentatu izan dozu materialagaz, beraz.

Bai, hogeita hamar urte baino gehiago daroat sorkuntzaren inguruan, bai Kroazian bai Italian; eta hemen be horretan dihardut. Hona ailegatu nintzenetik bila ibili naz, eta orain urte gitxi lortu dot neure esperimentazioa, ideiak eta lanak burutzeko tailerra edukitzea.



Oso beharrezko izango dozu zure lana garatzeko tailerra aukeran edukitzea...

Sortzaile batentzat ezinbestekoa da esperimentatu ahal izateko espazio aproposa izatea. Base-ri batean daukat tailerra. Askokostatu jat tailerra lortzea, baina, zeozer gura izan eta horregaitik borrokatzen badozu, ailegatu egiten da azkenean.

Zure herrian, arteagaz lotutako ogibidea zeunkan?

Nire profesinoaz ez zen artea; ahal neban guztian egiten neban lan. Burdingintza ikasketak burutu nituen nire herrian. Lantokian, fabrikako metal soberakinetan, lankideek txatarra ikusten eben lekuan figurak ikusten nituen nik. Gero hasi nintzen soberakin horreek nire sorkuntza eta eskulturretarako baliatzen.

Zelakoa izaten da zure lan baten sortze prozesua?

Edozein lan egin aurretiko prozesua oso da luzea; marraztu egiten dot lehenengo, eta plastilina-gaz eta kasuan kasuko lehengaigaz esperimentatu egiten dot. Marraztu eta gero, ezabatu egiten dot asko; eta plastilina-gaz egin eta desegin. Zirriborroak egiteko plastilina dot gustukoen, baina buztinagaz be egiten ditut bozetoak.

Pieza zehatz bat sortzeko inspirazioa nondik sortzen da?

Egiten dodan guztiak daroa nire inspirazioa; haizea, gerizpe bat, eguzkia, olatu bat, hosto

bat... edozer izan leiteke inspirazio iturri. Gora-gora tabernan ipintzeko egin ditudan piezak osatzeko be, aurretiko lana izan da denpora gehien eroan deustana; ideiak zirriborroetan islatu eta erosleari erakustea.

Zelan hartzen dau jenteak dekorazinoarako artea?

Ondo. Askok ez, baina zeozer saltzen dot. Salgai ipini aurretik be lan handia dago atzetik: egin ahal joan behar izaten dot lana erosleari erakusten. Dena dela, apur bat geldirik dago gure salmenta azkenaldian: bat-batekotasuna eta produktu merkeak bilatzen ditu gehiago jenteak.

Gatxa egiten jatzu lan bat amaitutzat emotea?

Bai, askokostatzen jat lanak bukatutzat emotea: bizi egin behar dozu honegaz, ez da egun batetik bestera hasi eta amaitzen. Bizitzeko behar dot sortzea; biziago dago nire ustez, sortzailea dena: orduko lana daukan pertsona batek ez bezala, hogei-ta lau orduan ideiak proiektatzen dabil sortzailea. ■ I.E.

“Bilaketa prozesu infinitua da sortzea”

Arte, sorkuntza, bakotxaren barrura eta natura gerturatzeko bidea da Safet Bijelicentzat. Infinitua den prozesua, bilaketa, bidaia. Bidaia hori da Kroazian jaio eta azkeneko hamar urtean Durangon bizi den artistarentzako ikasgai handiena, materialagaz esperimentatzea bera: lanen atzean dagoen kontzeptua osatzen saiatzea, amaiera jakirik ez daukan bidea ibiltzea bera.

“Zein da artearen eta artisautzaren arteko aldea?”, galdetzen dau Bijelicek. “Pentsatzeko modua, lanaren atzean dagoen kontzeptua eta inspirazioa” dira bere berbetan ezbardintasunak.



MUSIKA > EMANALDIAK

Lee Hale eta Petti Berbaroren hogeigarren urteurrenerako

Irailaren 18an, 22:00etan hasita, igoko dira Durangoko Plateruena kafe antzokiko oholtzara Texas-eko Terry Lee Hale eta Petti beratar kantaria



Gitarra eta bere ahotsa dira Terry Lee Hale-en kontzertuen zutabe.

Estatu Batuetan, Texas-en, jaio eta hezitako musikariaren emanaldia izango dugu datorren barikuan, irailaren 18an, Plateruenean aukeran. Berbaro euskara elkartearen hogeigarren urteurreneko ospazunekin bat eginda programatu dituzte Terry Lee Hale eta Petti bakarlarrien barikuko zuzenekoak.

Estatu Batuetan
errotutako musika
irailaren 18rako

Texasen sortutako
Terry Lee Hale eta Petti
Platerueneko gonbidatu

Musika ibilbidea Estatu Batuetan abiatu zuen, baina Europan ere hainbat grabazio eta kontzertu eskaini izan ditu Lee Hale musikariak. Arotz, sukaldari eta kamioilari moduan lan egin izan du bere bizitzan Lee Hale-ek, baina beti gitarra, eta abestietako berbak idazteko papera eta boli-

grafoa be aldamenean zeuzkala. Country zein blues doinuak jorratzen ditu amerikarrak, eta sei nahiz hamabi sokako gitarrak jotzen ditu abestiak sortzeko. Soinu akustikoen eta elektrikoaren oreka bilatzen du Lee Hale-k, *Dead is dead* kanta da esterako, horren lekuko.

Norwegian hainbat kontzertu eman eta gero, eta egun bat lehenago Gasteizen jo ondoren etorriko da Terry Lee Hale Plateruenera. Bere ibilbide luzeari errepasoa egingo dio irailaren 18an.

Erroetatik, Petti

Terry Lee Hale legez Berbaroren urteurrena ospatzera etorriko da, baina gertuagotik, Beratik, Petti abeslaria. Azkeneko kaleratu duen *Eman eta hartu* diskoan bildutako kantak erakusteko igoko da musikari nafarra Platerueneko oholtzara. Folk eta rock doinuak uztartzen ditu Pettik, Terry Lee Hale-ekegiten duen antzera; AEBetan errotutako musikaren oihartzuna Pettiren ahotsean ere. ■ I.E.

Folk doinuak lantzen
dituzten kantari biren
zuzeneko emanaldia

Anje Duhalderen emanaldia Elorrioko jaien erdibidean

Domekan, jaien hirugarren egunean izan zen Ferixa Nausiko jaien egitarauaren barruko Anje Duhalde musikari arrangoiztarraren emanaldia herriko plazan. Orain ia berrogei urte, 70eko hamarkandan, Mixel Ducaurekin euskal musikan rock doinuak lantzen aitzindaria izan zen Errobi taldearen sortzailea izan zen Elorrioko plaza.

Lapurdi eta Nafarroa Beheretik igarotzen den erreken izen bereko Errobi taldeagaz lehenengo, eta Akelarre erromeria taldearekin gero, Euskal Herriko hainbat txokotako oholtzak zapaldu ditu Duhaldek. Gurean ere askotan izan dugu arrangoiztarraren abestiak entzuteko eta kantatzeko aukera.

Hamarkada bat geroago, 80ko hamarkandan, abiatu zuen *Errobiaren hegitik* diskoarekin bere bakarkako ibilbidea Anje Duhalde lapurtarrak. Ondoren etorri zen, besteak beste, *Bakezaleak* diskoa eta izen bereko kanta, eta euskal herriko kantagintzan doinu ezagunak diren beste zenbait.



K.Aginako

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

IRAILAK 12 23:00etan
ESNE BELTZA + DJ Z
DUR&GO ROCK CLIMBING MASTER
KONTZERTUA. Sarrera: 10 euro.

IRAILAK 17 20:00-22:00etan
• **BERBARO 20 URTE +**
• **EUSKARAZETAMOL**
HITZALDIA + ANTZERKIA (4 euro)

IRAILAK 18 22:00etan
TERRY LEE (AEB) + PETTI
KONTZERTUA. Sarrera: TBA.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

XX. MUSIKA HAMABOSTALDIA
Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

Irailak 11
20:30ean

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburu

11:59 600 07 76 Artekale, 14 Durango



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak. Eguneko menua.
Menu bereziak. Kartan, aukerako
okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu, 9 Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak
jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik
larunbatera. Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehena eta
martitzen gabaz itxita.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik
zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Merendolak.

Jatetxe
gida



Zaldibarko Batzokia

Arangoiti 5, Zaldibar
Tel.: 94 682 78 14

Eguneko menua. Karta.
Gosariak. Razioak eta kazuelitak.
Ospakizunak.
Astelehenetik igandera zabalik.



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Templete Jatetxea

Hotel Kurutziaga, Durango
Tel.: 94 620 08 64

Ospakizunak.
Karta.
Eguneko menua.
Menu berezia.



Ganeko Etxe

Elizondo, z/g Berriz
Tel.: 94 682 40 27

Aintzinako baserri baten gerizpe
gozoan, etxeko moduan sentitzeko.
Arrain errea kartan.
Eguneko menua: 8 euro.

Antzinako antolaketa eredua, oraindino bizirik



Inaki Irazabal

Iraileko bigarren domeka Kofradi Eguna izan ohi da lurretan. Aspaldiko antolaketa eredua den kofradia, errealitatea da oraindino herrian. Sei Kofradien Batzar Orokorra da eguneko zita nagusia; horren bueltan ekitaldiz beteriko jaia eratzen da. Aurten, XXXVI. edizinoa ospatuko da Laixiar Zelain.

Azterketa historikoen arabera, XIII. mendetik datoz kofradien inguruko lehenengo barriak

Lurretako herria zeozergaitik berezia bada, ohitura zaharrak mantentzeko egindako lanagaitik da. Historiakorapilatsua da herri honena: hainbat urtean Durangoren menpe egon zen, esaterako. Dena dela, nortasuna eta herriko kultura pisu handiko faktoreak dira bere ibilbidean; baita gaur egun be. Kofradiak dira horren adibide. Atzeragoko mendeetako egitura administratibo horreek bizirik segitzen dabe, nahiz eta funtzionamendua moldatuta egon.

Laixiar Zelain ospatuko dabe domekan urteroko Kofradia Eguna, 70eko hamarkadan sortutako usadioari eutsiz. Bertan dagoen harrizko mahaiak sinbolizatzen dauen moduan, sei kofradietako kideak elkartuko dira: San Mar-

ko, Santa Maña, Fauste, Orozketak, Iurreta eta Goiurikoak. Kofradietako juntakideek emongo ditueen azalpenak entzutea da egun horren oinarria.

Erdi Aroko egitura

Azterketa historikoen arabera, XIII. mendetik datoz kofradien inguruko lehenengo barriak. Baserri-auzoetako beharrazanei erantzuteko sortu zen lehenengo egitura politiko-ekonomikoa da kofradia, anai arteko bilkura adierazoten dau latinez. Urteetan aurrera eginda, kristautasuna sartzen joan zen Durangaldean, eta kofradiak ermita edo baselizen inguruan antolatzen hasi ziren. Bilkurak be bertan egin ohi ziren. Sasoi haretan lur

gehiena publikoa zen, eta hain justu, lur publikoen ugazaba zen kofradia. Jendarte haretarako oso garrantzitsua zen basoa, bizimoduko makina bat hornigai ateratzen zirelako: ganadua-rentzako belarra, azpigiak eta jaki garrantzitsuak; gaztainak kasurako.

Lurraldea antolatu eta hartu-emon sozialen espazioa zen, biztanleen eskubide eta betebeharrak definituz, auzolana bideratuz... Kofradiek ezin bae-ben arazo jakinen bat konpondu, elkarrekin batzen ziren, Elizateak sortuz.

Mendeetan honantza eginez, baina, kofradiek pribatizazio prozesua igaro eben, eta XIX. menderako errealitate marjinalak ziren kasik. Gainera, gerrateek pobrezia ekarri eben, eta ordurako sortuta zegoen udalekazen lurrak jauntxoei saldu eutseezen. Iurreta izan zen salbuespena, Udalak kofradiei saldu eutsezen-eta 1858an. Elordui, Urbitarte, Larratxu, Laixiar Zelai, Atxmokil, Keizaga Txikia eta Keizaga Nagusia izeneko basoak sei kofradien esku geratu ziren, bakotxari bat emonez.

Lur-gune publikoaren ugazabak ziren kofradiak

Iurreta izan zen pribatizazioaren salbuespena, Udalak lurrak kofradiei saldu eutsezen-eta

ErdiAroko funtzino gehienak galduta zeukiezen kofradiek, baina mendien ustiaketari esker berpizkundea izan eben.

Durangogaz arazoak

1926an Iurretako Durangoren eskuetan geratu zen, herritarren gehiengoak ados egon ez arren. Industrializazioaren ondorioz, Durango lurrik barik geratzen zebilen, eta menpean hartu eban Iurretako.

1955ean, Durangoko agintariek kofradien lur publikoak eskatu zitueen, euren eritziz “abandonatuta” zegoelako. Iurretarrak, eskriturak eskuan, kexatu egin ziren, eta alde bien arteko gatazkak 1973a arte iraun eban. Azkenean, Durangok iraganeko legea onartu eban, eta 1975ean etapa barria hasi eben kofradiek. Durango barruan, baina izaera propioa mantendu eben Iurretako antzinako egiturek, euren lur publikoak kudeatzeko eskubideagaz.

1955ean, Durangoko agintariek kofradien lur publikoak eskatu zitueen

Basoak zaintzeaz gainera, bertatik ateratako etekinak auzoetako beharretarako erabili izan ditue

Gaur egungo egoera

Askorentzat, Iurretako Durango alboko herrigunea baino ez da, baina bere lur zabalean auzo ugari hedatzen da. Kofradiek, denporagaz funtzino asko galdutako arren, oraindik be badaukie eraginik auzoetan. Basoak zaintzeaz gainera, bertatik ateratako etekinak auzoetako beharretarako erabili izan ditue: argiteria instalazioa, uren bideratzea, bidexken konponketa... Bestalde, auzolanak bizirik dirau halan behar denean; suteak dagozenez, esate baterako.

Urte honeetan guztietan “gauza garrantzitsuak” egin ditue elapentsatzen dabe, Zamañloa lehendakariak esan deuskunez. Egurraren ustiapenerako eraikitako baskula ipini deusku adibide moduan.

Pinuaren balioak behera egin dau, baina, eta horregaz batera geroa “zalantza betetik” e dator. Etorrizuneko eskriturretan ikusi dogu. ■ M. Onaindia

“Parte hartzen dabenek sentitu egiten dabe domekako jaia”



“Pinuen balioak behera egin dau eta horrek diru arazoak ekarri deuskuz; gaur egun ez da egurrik ia ezertarako be erabiltzen, inork ez dau gura egurrik”

Iurretako Kofradien lehendakaria da Juan Zamalloa. Arriandiko bere baserrian hartu gaitu, Santa Mañako kofradian, hain zuzen be. Solasaldiaren ondoren Laixiarrerako ibilalditxo egin dogu. Beragaz ekarri dau zurezko kutxa berezi hori: Kofradien dokumentu garrantzitsuak daukaz gordeta bertan.

Zenbat urte daroazu Kofradien inguruko arduragaz?

Kontuak eroaten eta antzeko lanetan hasi nintzenetik 34 urte bete dira aurten. Lehendakari moduan 26 daroadaz; aurreko zortzietan Adolfo Abasolo izan zen presidente. Esperimentzia badaukagula esan leiteke.

Zer funtzino betetzen dozu lehendakari moduan?

Gure estatutuen arabera, presidentek ez dauka aginpide handirik. Batzarretan mahai-ingurua osatu eta zuzentzea da gure lana, eta, sei Kofradia garenez, berdinketa egoten bada lehendakariaren botoa erabakiorra da. Bestela, protokoloa dela esan leiteke. Bi hilabete behin edo batzen gara, eta arazoren bat dagoenean nire esku dago jenteari azaldu eta proposamenen bat egitea.

Estatutu horreek aspaldikoak dira, ezta?

Bai. Batzuek pentsatzen dabe zaharkituta dagozela, baina gehiengoak mantentzearen alde egiten dau. Basoaren administrazioari begira-

koak dira, etxe bakoitzak boto bat daukalarik, eta aldaketak egiteak hainbat interes sortu leikez. Ez dago horren gaineko eztabaidarik.

Administrazio lanak papeleoa ekarriko dau...

Bai. Gaur egun ia guztia da papeleo kontua. Urteetan batutako paper guztiak gordeta daukaguz, eta garrantzitsuenak Jose Antonio Artinok egindako kutxa horretan. 1858ko eskriturak be hemen daukaguz gordeta.

Zer arazo nagusi daukazue orain? Garrantzizko ezer?

Pinuen balioak behera egin dau, eta horrek diru arazoak ekarri deuskuz. Ez dakit egoera hori aldatuko den edo noiz arte iraungo dauen, baina gatz daukagu. Izan be, lehenago gaur askotarako erabiltzen zen egurra; sua egiteko, batez be. Baina orain ez da egurrik ia ezertarako be erabiltzen. Inork ez dau gura egurrik.

Domekan ospatuko dozue Kofradia Eguna. Nondik dator ospakizuna?

1975ean hasi ginen ekitaldi hori antolatzen. Ordezkariontzako arazoa zen kontuak egiteko batzea, eta urtean egun bat jartzea adostu genduen. Bertan, urteko kontuen azalpena egiten da jendaurrean. Hainbat ekitaldi eta bazkaria izaten dira han, eta 500 pertsona inguru batzen gara. Parte hartzen dabenek sentitu egiten dabe domekako jaia.

Domekan Laixiar Zelain batuko dira herritarrak, XXXVI. Kofradi Egunean

Herritar ugari batzen dituen ekitaldia da Kofradi Eguna, eta seguru aurten be halan izango dela, eguraldia lagun bada behintzat. Bat baino gehiago egongo da zerura begira egunotan. Eguraldi txarra tokatuz gero, eskoletako aterpean ospatuko dabe jaia.

XXXVI. edizinoa dau aurtengoa Kofradi Eguna. Iurretarrak egun-pasa egiteko helburuz hurreratzen dira Laixiar Zelaira, eta batzuek aurreko egunean joateko ohitura be hartu dabe, lekuak eskaintzen dauen lasaitasuna aprobetxatuz.

Antolatzaileek hainbat ekitaldi prestatzen ditue egunean zehar, giroa alaitzeko. Helburu nagusia, baina, festaren laguntzaz kofradien urteko kontuen barri emotea da.

Mezatik erromeriara

Eguerdiko 12:00etan emongo jako hasiera egitarauari. Mezak zabaldutako dau eguna, eta horren ostean Kofradien Batzar Orokorra etorriko da. Kontuak argitu eta gero, Iurretako dantzariak saioa eskainiko dabe, baita bertsolariek be.

Gosea egiteko denpora izanda eta lagun artean tragoxka pare bat jota, bazkaritara batzeko ordua helduko da. Hauxe da eguneko beste hitzordu nagusietako bat. Bakotzak bere jatekoa



I. Irazabal

eroan beharko dau etxetik; kofradien ardura izango da, barriz, denentzako edatekoa eroatea.

Behin arratsaldean sartuta, jaiak bi ekintzagaz egingo dau aurrera. Alde batetik, umeendako jolasak antolatuko ditue, eta bestetik erromeriak dantzarako eta gorputza mugitzeko aukera emongo dau.

Orozketan, San Marko, Fauste, Santa Maña, Goiuri eta Iurretako auzokideak berriro elkartuko dira domekan, sei kofradiak herri bat osatzen dabela gogoratzeko.

ERITZIA[>]

Gutunak



Atxondoko igerilekuen egoera dela-eta

Joan den astean orriotan irakurritakoei erantzun eta aurtengo udan igerilekuan gertatutakoak argitzeko asmotan, Atxondoko Udalak ondorengoa adierazoten dau:

Ez dogu uste egokia denik aitatutako idatzia gezur bategaz hastea, gezurra dalako "urtero" berandu zabaltzen direla Atxondoko igerilekuak. Egia da, halan be, behin baino gehiagotan gertatu izan dela, eta aurtan be bai, zoritxarrez. Honezkero zahartuta dagoen igerilekuak direnez, urtero dago konponketak egiteko beharra, eta negu osoan erabiltzen ez diren makinek arazo asko emoten dabe martxan jartzerako orduan. Arazooi aurre egiteko eta legediak segurtasun eta kalitate arloan eskatzen ditueenak betetzeko, urte biko epean 90.000 inguru inbertitu doguz igerilekua barritzeko lanetan; beti be, Eusko Jaurlaritzako osasun teknikariek eskatu edo gomen-datutako hobekuntzetan.

Uztailaren 22an, baina, gauean zehar ur hodi nagusia apurtu zen, eta goizerako makina gela guztia urpean zegoen. Ondorioz, bomba, koadro elektriko, doigailu eta bestelako makineria guztia hondatu egin zen. Astebetera zabaldu genduen barriro igerilekua, behin-behineko konponketak ahal izan genduen azkarren egin ostean. Horrek ekarri dau, esate baterako, ordutik aurrera kanpoko dutxetan urik ez egotea. Dutzak konpontzeak beste hainbat egunetan igerilekua itxita egotea eskatuko leuke, eta aldageletako dutzak erabiltzeko aukera egon denez, uste dogu hartutako erabakia izan dela egokiena. Datorren urterako, baina, horreek eta beste batzuk be konponduta egongo dira, beste gauza asko baitago konpontzeko oraindino. Harritzen gaitu, dena dela, ia inork erabiltzen ez dituen dutzak apurtzen direnean hainbesteko haserrea sortzea.

Kexa gutunaren egileei jagokenez, "Apatako eta Elorrioko bazkideak" izenagaz sinatu eben. Formalki eratutako talde baten aurrean ez gagozanez gero, komeniko litzateke sinatzerakoan bertan zehaztuta egotea, behintzat, zenbat diren sinatzaileak: 2, 20 edo 200 diren jakin daigun. Anboto astekarira gutuna bialdu ebanak dinonez, 15 lagunenez izenean idatziz eban gutuna, baina baten izena bakarrik agertzen da.

Atxondoko igerilekurako bonoa ehunka pertsona eta familiak egiten dabe urtero, bai bertakoek bai inguruko herrietakoek (Elorrikoek batez be, bertan ez dagoelako kanpoko igerilekurik). Horrez gainera, beste ehunka erabiltzaile dago, bonoa egin barik, doazenean sarrera ordaintzen dabenak. Ulergarria da horreen artean asko haserre egotea, eta hainbat bider egin dogun legez, berriro barkamena eskatzen deutsegu kaltetutako guztiei.

Euren idatzian esaten eben idatzizko kexak ekarri ditueela udal bulegoetara, baina abuztuan zehar bost elorriarrek ekarritako idatzietan eskatzen zen gauza bakarra diru-konpentsazioa zen. Bertan ez zen beste ezelako kexarik aitatzen; ez dutzak direla-eta, ez ur-estalkiak direla-eta. Ondorioz, suposatzen dogu ez direla pertsona berak izango.

Orriotan ur-estalkien egoera kaskarra salatu eben arren, orain arte ez dogu izan horren barririk, ez igerilekuak zabaltzerakoan azterketa egitera datozen Eusko Jaurlaritzako teknikarien partetik, ez erabiltzaileen partetik; ezta igerilekuko langileen partetik, euren arduaren barruan baitago holakoak konpondu edo guri jakinaraztea konpondu beharra daukiela. Horrek be, zer eta nori erantzun behar deusagun jakin barik izten gaitu. Dena dela, lehen esan dogun moduan, zalantzarik ez izan konpondu beharreko guztiak konponduko direla datorren urterako, osterantzean, Eusko Jaurlaritzak ez leuke zabaltzeko baimenik emongo-eta.

Bestalde, aurtan dutxa gitxiago egoteak dakarren balizko arriskua aitatzen eben joan den asteo idatzian, igerileku haunditik iga-

ro behar delako ertainera sartzeko. Ekainean be egon zen elorriar baten beste kexa bat zentzu horretan, baina harek txarto ikusten eban hesi bategaz igerileku haundia eta txikia banandu izana. Orduan emon genduen erantzun bera emongo deusuegu oraingoan: ez dogu inolako arriskurik ikusten, 5-10 urtetako umeak ezin direlako igerilekuan bakarrik ibili. Argi idatzita dago, igerikuan bertan, 12 urtetik beherakoak heldu batek lagunduta bakarrik sartu leitekezela uretara. Gainera, edozein aldaketak benetako arriskurik ekarriko baleu, Eusko Jaurlaritzak ez leuke igerilekuak zabaltzen itziko.

Amaitzeko gure ustez honen guztiaren atzean dagoen arazo baka-rrera joko dogu. Inori dirua bueltatzen hasi barik astebete gehiago zabalduko doguz igerilekuak, aukerarik egokiena hori dela uste dogu-lako, nahiz eta dirutan Udalarentzako garestiena izan. Dirua bueltatzen hasiko bagina, bonoa daukan pertsona edo familia bakotxari 2 eta 4 euro bitartean emon beharko geunskioz. Baina itxita egon zen egun guztiengaitik ala denbora ona egin ebanengaitik bakarrik? Eta erabiltzaile guztiei? Ala eske etorri direnei bakarrik? Ala eske etorritakoen artean beste igerileku batera joan direla egiaztatu dabe-nei bakarrik? Eta aste horretan oporretan egon zirenei, bardin-bardin ez zirenei igerilekura etorriko?

Berba baten esanda, ikusten dogu dirua bueltatzen hasiz gero, horrek arazo gehiago besterik ez leukela ekarriko. Igerilekua beste astebete zabaldu, barriz, mundu guztiari emoten jako aukera bardina. Baten batek irailean ezin badau igerilekura etorri, suposatzen dogu ekainean be ezin izango ebal, baina joan den asteo gutunaren egileak ez dira egoera horretan egongo, noski, ekainean 4 egun geroago zabaltzeak kalte handia egin eutsen-eta.

David Cobos Sarraoa, Atxondoko alkatea

Haur txikien gurasoei laguntza eske

Urteetan ari gara haur txikien hizkuntzaren garapena iker-tzen. Une honetan etxean gurasoengandik euskara eta gaztelania aldi berean entzuten duten haur txikien euskararen eta gaztelaniaren garapena ari gara ikertzen. Ikerketarako gurasoak ditugu informazio-iturri, euren bete behar baitituzte galdetegi bi, hizkuntza bakoitzean bana.

Eskutitz honen helburua ikerketa honetan euren seme-alaben informazioa eman nahi duten gurasoak bilatzea da.

Prest bazauze laguntzeko, eta zuen umeak gaztelania eta euskara entzuten baditu etxean, eta a) 12 hilabeteko haurra baduzue, edo txikiagoa (laster izango dituelako 12 hilabete), edo b) 24tik 30 hilabete bitarteko haurra baldin baduzue, gurekin jar zaitezke harremanetan.

12 hilabete inguruko umea baduzue, zuen zeregina, guraso biena alegia, zera litzateke, haurrak 12, 18, 24 eta 30 hilabete dituenean galdetegiak betetzea. Ostera, zuen umeak 24tik 30 hilabetera bitarteko adina badu, behin baino ez dituzue bete beharko galdetegiok.

Gure taldeak, horrela, etxetik elebidunak diren haurren hizkuntza-garapena aztertzei aukera izango du. Ikerketa-taldea Mondragon Unibertsitateko, Euskal Herriko Unibertsitateko eta Salamancako Unibertsitateko ikertzaileek osatzen dugu, eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Espainiako Ministerio de Ciencia e Innovación Tecnológicoaren babesa dauka.

Gurekin harremanetan jartzeko, Andoni Barreñaren ondoko helbideak erabil ditzakezue:

andoni@usal.es edo 656 767 604.

Eskerrik asko

Andoni Barreña

kolaborazioa



Endika Blanco

Badatoz Sanmigelak

Demagun 2009ko irailaren 27a dela. Euskal Herriaren askatasunaren eta jendarte justuago baten alde bizia eman dutenei, traba guztien gainetik, merezitako omenaldia egin ostean etxean naiz berriz ere; bihar San Migel bezpera izanik, atsedena hartu beharra baitago. Afaltzen ari naizela, iurretarek eta erreka bestaldeko erdi iurretarek horrenbeste miresten dugun biharko egun honi Wenceslao santua dagokiola irakurri dut, parez pare dudan sukaldetako egutegian. Hau, oso arrotza egin zait, eta jakingurak Internetera jotzera bultzatu nau; bertan "Del checo: Wences = el más. Lao = glorioso" topatu dut. Izena eta izana, alajaina!

Akorduak ilusio bihurtzen igaro dugu urte osoa, gure lagunartean behintzat iaioak baikara horretan. Orain ere, ohean sartu eta pilaturiko nekea tarteko, ziplo lokartuko nintzela uste nuen arren, iragan jaietako oroitzapenak diapositiba zaharrak bailiran datozkit burura; poliki-poliki, batzuk argiago, besteak ilunago; batzuk hur-bilago, besteak urrunago. Zapia jantzi eta berau erre bitarteko orduak etengabeak dira lurretan: Montoiko txapligoen usaina, poteo eta erromeria amai-gabeak, Donien-Hatxajasoetaren zirrarra (eta bere aurkako atentatu saiakerak), dantzari nekaezinen dantzak (soltean dantza egitera ez irtetearren egiten diren ezkutatzak), entzuleon odola bor-bor jartzea lortzen duten bertsolariak, txosnako txorizo egosi eta patata tortilla ezin hobeak...

Hau guztia ez litzateke posible izango, ostera, herritik eta herriarentzat, urtero jaiak antolatzen diharduen Aitte San Migel jai batzordeari esker ez balitz. Hortaz, eskerrak zuei eta bihar arte!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2009ko irailaren 11 - 8. urtea - 342 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar eta Miren Abasolo.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti

Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa:

Aitziber Basauri, Pello Mugarza,

Itsaso Esteban, Markel Onaindia

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit

Fernandez eta Kepa Aginako.



Maitane Martinez hirian zehar zebilen bizitzan hiru gauzak ardura dutela hausnartuz: osasuna, maitasuna eta lana. Horoskopoak hirurak iragarri zizkion, baina berak ez zuen euskaraz ulertzen.



Lana bilatu zuen, beraz, eta aurkitu.



Herrialdez herrialde bidaiatu zuen, dirua irabaziz baina osasuna galduz



eta utzi egin zuen, etxera itzuli eta footinga egiteko. Horrelaxe egin zuen topo berri ere Gari Garaterekin,



maitemindu egin ziren eta Gari aek-n matrikulatzeko konbentzitu zuen Maitane.

Gaur egun Maitanek badaki euskaraz, maiteminduta jarraitzen du eta osasuntsu dago. Nola ez, lana ere aurkitu du.

Batzuetan, biderik laburrena da onena.



...garena ikasteko!

ikasi euskara Eman izena

æk

Garena ikasteko
para entendernos
pour se comprendre

www.aek.org

Durango Abarrak AEK euskaltegia 946 81 73 49
Zornotzako AEK 946 73 43 70
Elorrioko Abizari AEK euskaltegia 946 58 21 11
Abadiñoko AEK, Berrizko AEK, Zaldibarko AEK, Informazioa:
946 81 73 49 (Durangaldeko AEK)

- Euskalduntze maila guztiak
- 3.maila /EGA prestatzeko ikastaroak
- 1., 2., 3. eta 4.mailako HABE azterketa ofizialak
- Hizkuntz eskakizunak, Irale, HAEE.. ikastaro trinkoak,...
- Eskaintza bereziak : Guraso Taldeak, merkataria, enpresa taldeak, etorkinak - AISA
- Autoikaskuntza
- EGA edo HE2tik gorako ikastaroak: 4.maila (4 H.E/P.L)

AGENDA>

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Irailaren 17an, 22:00etan

EUSKARA AZTERGAI

Hizkuntzagaz "jarrita" dagozenez zer egiteko gai diren erakutsi gura dabe Patxo Telleriak eta Mikel Martínezek *Euskarazetamol* obraren bitartez. "Esperimentu zientifiko bat" egin dabe, "mega-ikuskizun" horretarako behar den "super-euskara" lortzeko: "Euskaltzaindiako Liburutegian sartuta egon dira, hilabete; arribadore baten barruan". 20. urteurreneko ospakizuna atxaki gonbidatu dau Barbarok Bikoteatro Plateruenera.

ANTZERKIA

DURANGO

- » **Barbaro Elkartearen** 20. urteurrena: 'Euskarazetamol' (Bikoteatro). Irailaren 17an, 22:00etan, Plateruenera.

AURKEZPENA

IURRETA

- » **Sigi-Saga Durangaldeko bizikletazaleen elkartearen aurkezpena.** Irailaren 14an, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.
- » **Anderebide elkartearen aurkezpena.** Irailaren 15ean, 18:30ean, Ibarretxe kultur etxean. Ondoren, **Symphonik** taldea.

BERBALDIA

DURANGO

- » **Barbaro Elkartearen** 20. urteurrena: 'Euskararen azken 20 urteak Durangaldean' (Pablo Sagardoy, Agurtzane Ortiz de Landaluze eta Jon Aizpurua, Barbaroko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ikerketa zerbitzuko kideak). Irailaren 17an, 20:00etan, Plateruenera.
- » **'Mendekotasunaren Legea'** (Juan Maria Aburto Gizarte Ekintza arloko foru diputatua). Irailaren 12an, 10:00etan, Landakon.

BESTEAK

DURANGO

- » **Santa Anako indusketara bisita gidatuak.** Irailaren 11n, 18an eta 25ean, 19:00etatik aurrera. Irailaren



12an, 13an, 19an, 20an, 26an eta 27an, 10:00etatik aurrera. Ordua hartzeko Turismo Bulegora jo leiteke (94 603 39 38)

ERMUA

- » **Extremaduraren Eguna.** Irailaren 12an eta 13an, hainbat ekitaldi Extremadurako kultur zentroan.

IURRETA

- » **Iurretako Kofradien Eguna,**

irailaren
13an,
Laixiar
zelaian.



DANTZA

DURANGO

- » **Adinekoendako udako dantzaldiak: Trio Top 90,** irailaren 13an, 18:30etik 20:30era, Ezkurdi plazan (euria eginez gero, Azoka plazan). Adinekoen Sailak eratuta.

DEIAK

DURANGO

- » **Odola emoteko aukera,** Eguenero, 16:30etik 21:00etara bitartean, Anbulatorio Zaharrean. Mugarra odol-emole elkarteak deituta.
- » **2008-2009 ikasturtean zehar euskara ikastaroak egiteagaitik diru-laguntza eskatzeko,** urriaren 9a arte dago aukera, Udaleko erregistroan. Horretarako 12.400 euro gorde ditu Udalak.
- » **2009an zehar kanpoko errotuluak eta webguneak euskaraz jartzea-gaitik diru-laguntza eskatzeko aukera,** urriaren 31a arte, Udaleko erregistroan. Laguntza horretarako 9.000 euro gorde ditue eta Euskara Sailaren bitartez emongo ditue laguntzok.

ZALDIBAR

- » **Zapatublai aisialdi egitasmoan parte hartzeko izena emoteko epea.** Irailaren 18a bitartean dago aukera, Udaletxean. Zapatuetan, hamabostean behin, 16:00etatik 19:00etara izaten da, urriaren 10ean hasi eta ekainaren 12a bitartean.



ERAKUSKETA

ERMUA

- » **Pintura eta eskulturak.** Alberto Ramírez. Irailaren 20a bitartean, Lobiano kulturgunean.

JAIK

ELORRIO

Ferixa Nausikoak

- » **Haur parkea,** irailaren 11n, 11:30etan eta 17:00etan, Gernikako Arbola plazan. **Meza azken urtean hildako jubilatuen omenez,** 12:00etan, Sortzez Garbiaren basilikan. Aldatzekuan, **Elorrioko jubilatuentako luntxa,** 13:00ean.
- » **Umeendako animazioa,** irailaren 11n, 18:30ean, Urarkan: **Musika tresnen tailerra.** Errugbi zelaian, **jaietako errugbi partidua,** 19:00etan. **Erromeria eta dantza txapelketa jubilatuentako, Oihergi taldeagaz,** 19:00etan, Aldatzekuan.

- » **Euskal erromeria: Zeina,** irailaren



11n, 20:00etan, Gernikako Arbola plazan, eta, Urarkan, 23:00etan, **Four-Five Stars emakume orkestragaz erromeria.** Aldi berean, **kontzertua,** Gaztetxean, eta, gauerdian, Ateneoan, **Disko festa: Dj Budin.**

- » **Sukalki Eguna.** Irailaren 12an, 08:00etan, izen-emotea eta erreserbak, Aldatzekuan.



Euskal kanta eta erromeria Bentazaharreko mutilak taldeagaz, 17:30ean.

- » **Haurrendako parkea,** irailaren 12an, 11:30etan eta 17:00etan, Gernikako Arbola plazan. **Txokolatada,** 18:00etan, eta, 18:30ean, zezentxoak.
- » **Kale animazioa: La Rustic Arland Band taldea,** irailaren 12an, 20:00etan, hirigunean. **Futbito partidua,** 16:30ean, Kiroldegian.
- » **Kale animazioa: Tandarica Orkestra,** irailaren 12an, 22:30ean, Gernikako Arbola plazan.
- » **Namek Planet + Su Ta Gar,**

23:00etan, Txosnagunean, eta, Urarkan, 23:30ean, **Joselu Anaiekin erromeria.** Gauerdian, Ateneoan, diskofesta: **Dj Teo + Rojo (elektrikoa).**



- » **'Amets daigun' elkartasun jaialdia,** irailaren 13an, goizean, **Kainabera GKEK** eratuta. Herrikirolak, 13:00etan, Gernikako Arbola plazan. **Umeendako danborrada,** 17:00etan, eta,



19:00etan, **kale animazioa: Gicani-cia.**

- » **Jubilatuentako erromeria: Irusta taldea,** irailaren 13an, 19:00etan, Aldatzekuan. **Suzko zezena,** 21:30ean, Gernikako Arbola plazan (errugbi taldearen eskutik), eta, 22:00etan, errugbi zelaian, **suzko erruberrak,** (Astondoa pirotekniaren eskutik).

IURRETA

Sanmigelak

- » **VII. Pilota Txapelketako finalaurdenak,** irailaren 14an eta 15ean, 17:00etan. Hilaren 16an eta 17an, **finalerdiak.**

IZURTZA

Erdoitzako Andra Maria

- » **Frontenis txapelketa,** irailaren 11n, 18:00etan, eta, 19:00etan, **trikipoteoa eta trikitilari alaiak (bitartean, flan-jan txapelketa).**
- » **Dj saioa: Dj Gato + Dj Rojo + Dj Ikar,** irailaren 11n, 23:00etan.
- » **XVIII. Mendi Bike Ibilaldia,** irailaren 12an, 16:00etan, eta, 18:00etan, **Dantzari Eguna: dantzarrien bilera,** eliza aurrean, eta jarraian, **kalejira eta partaideen argazkia,** Udaletxearen aurrean. **Dantzari Dantza,** 19:30ean, Udaletxearen aurrean; jarraian, **hainbat taldetako dantzariek osatutako sokagaz Soka-dantza.** Ondoren, **lagun arteko afaria,** 21:30ean, pilotalekuan. **Erromeria,** 23:00etan.

- » **Kalejira,** irailaren 13an 10:00etan. **Meza,** 11:00etan, San Tomas basilizan, eta **Mendigain dantza taldearen saioa,** 12:00etan. **Miren**

Amuriza eta Maialen Arzallus bertsolariak, 12:30ean;



aldi berean, **Gorriti eta bere abereak.**

- » **Jubilatuen bazkaria,** irailaren 13an 14:30ean, herriko plazan, **Aiora eta Ane trikitilariak girotuta,** eta, 17:30ean, **Toni La Sal (txotxongiloak);** 18:30ean, **mus txapelketa.**



IKASTAROAK

BERRIZ

- » **Igeriketa ikastaroak, cycling, aerobic, batuka, mantenu gimnasia, pilatesa...**, irailaren 21ean hasita. Irailaren 14a artean emon leiteke izena, Berrizburun. Lekuen zotz egitea 16an.

DURANGALDEA

- » **Euskalduntzea, EGA eta HABE azterketa ofizialak, hizkuntza eskakizunak, autoikaskuntza...**, AEK-euskaltegietan. Matrikulaldia zabalik (abarrak@aek.org / 94 681 73 49; abizari@aek.org / 94 658 21 11; zornotza@aek.org / 94 673 43 70).

DURANGO

- » **AIKO dantza taldeak aurtengo dantza ikastaroen eta dantzaldien inguruko informazioa emoteko prentsaurreko deitu dau hurrengo martitzenean, hilaren 15ean, Plateruena kafe antzokian, arratsaldeko 19:30ean.**
- » **Aisa-Etorkinendako euskara ikastaroak,** urriaren 1ean hasi eta abenduaren 16a bitartean. Martitzen eta eguaztenetan izango dira 16 urte edo gehiago ditueen etorkinendako eskolak; 19:00etatik 21:00etara. Izena emoteko azken eguna irailaren 30a, Udaleko Euskara Sailean (94 603 00 30 / www.durango-udala.net).
- » **GAP, batuka, tenis eta spin-bike.** Landako kiroldegian emon leiteke izena (94 603 00 31 / www.durangkioirak.net).
- » **Udal euskaltegia.** Irailaren 18a arte egongo da aurrematrikulatzeko aukera (94 603 00 40).

ZALDIBAR

» **Euskara eskolak eta Berbalagun.**
Matrikulaldia, hilaren 18a arte
(eguen@zaldibar.org /
94 682 70 16).

 LEHIAKETA

ABADINO

» **2010. urteko Argazki Lehiaketa.**
Abadiño udalerrria eta bere ingurua
gai hartuta aurkeztu leikez lanak
www.abadiano.org webgunean
erregistratutako 16 urtetik gorako
erabiltzaile orok. Gehienez lau
argazki helerazo behar dira,
webgunearen bitartez, irailaren 30a
bitartean. Urriaren 1ean emongo
dabe jakitera aukeratuak zeintzuk
diren, eta 31 arte emon ahal izango
da botoa. Boto gehien eskuratzen
ditueen argazkiei 12 sari emongo
deutseez eta 2010eko udal
egutegian argitaratuko ditue. Boto
gehien dituen argazkiak 300 euro
lortuko ditu (www.abadiano.org).

BERRIZ

» **I. Eskultura Lehiaketa.** Proiektua
azaroaren 2tik 27a artean aurkeztu
leike, norbanakoak zein talde batek
(artelanaren maketa eta kokapena
zehaztu behar da), Kultur Etxean.
Erakusketa egingo da, abenduaren
7tik urtarrilaren 8a arte. Saria:
18.000 euro. Udalak eratutako
lehiaketa (94 682 40 36 /
94 682 45 84).

ERMUA

» **Postal lehiaketa.** Azken eguna
irailaren 30a: 'Postal Lehiaketa'
Euskal Birusa kultur elkarte, 247
postakutxa Ermua (48260). Saria:
1.a, Kanariar irletara bidaia; 2.a,
lagun birendako asteburu pasa
landetxe batean; 3.a, lagun
birendako egun pasa spa baten.
Parte-hartzaileen artean Mendiola
jatetxean lagun birendako afaria be
egingo dabe zotz. Bestalde, 12
urte bitartekoen artean irabazleak
50 euroko erosketa txartela lortuko
dau; 2.ak 40koa eta 3.ak, 30koa.

ZALDIBAR

» **Euskadiko 1. Team eta Cattle
Pennig Txapelketa,**
irailaren
12an eta
13an,
Zaldibarren.
Zapatuan,
**elkarteen aurkezpenak eta Team
Pennig-ko 1. txanda,** 10:00etan,
eta, 17:00etan, **Cattle Penning.**
Country ekitaldia, 20:00etan,
21:30ean, **afaria** eta 23:30ean,
country ekitaldia. Domekan,
10:00etan, **Team Penning-ko 2.**
txanda. Sari emotea, 14:00etan.



+ **Ditchcreeper,** irailaren 11n,
21:00etan, Plateruenean.



» **XX. Musika Hamabostaldia:**
Euskadiko Orkestra Sinfonikoa,
irailaren 11n, 20:30ean, San
Agustin kulturgunean.

» **Dur&Go Rock Climbing Master:**
Esne Beltza+ Dj Z, irailaren 12an,
23:00etan, Plateruenean.

» **Gaztelako musika emanaldia:**
Colectivo Yesca, irailaren 12an,
20:00etan, San Agustin
kulturgunean. Palentziako eta
Gaztela-Leongo kultur zentroak
antolatuta.

 MUSIKA

DURANGO

» **Malevolent Creation + Vomitory**



Irailaren 11n, 20:30ean

**EUSKADIKO
ORKESTRA
SINFONIKOA,
SAN AGUSTINEN**

XX. Musika Hamabostaldiaren
eskutik eskainiko dau kontzertua
Euskadiko Orkestra Sinfonikoak,
San Agustin kulturgunean. Valentin
Zubiaurre Urionabarrenetxea (1837-
1919) maisuaren omenezko
kontzertua izango da hori, eta, Juan
Jose Ocón-en zuzendaritzapean,
Garain jaiotako musikari bizkaitarra-
ren lanek esanguratsuenak grabatu
gura ditu orkestrak disko batean.
Zubiaurrek hartu-emon estua izan
eban Durangogaz, Euskadiko
Orkestra Sinfonikoak legez; 1982an
jo eban lehenengoz Durangon, eta
oraingoa 7. aldia izango dau.

ERMUA

» **Folkez Blai: Quamlibet (Valentzia),**
irailaren 11n, 18:30ean, eta,
19:45ean, **Sokaide (Araba),** Orbe



Kardinalaren plazan. **Vallarna
(Valladolid),** 23:00etan, eta,
00:30ean, **Flipin Folk (Ermua).**

» **Folkez Blai: Nemon (Ermua),**



irailaren 12an, 18:30ean, eta,
19:45ean, **Lochlainn (Valentzia),**

Orbe Kardinalaren plazan. **Mauvais
Sort (Québec-Kanada),** 23:30ean.

» **Folkez Blai: Zambaruja
(Valladolid),** irailaren 13an,
18:30ean, eta, 19:45ean, **Dúo Nua
(Madrid),** Orbe Kardinalaren
plazan.



 ZINEKLUBA

ERMUA

» **Haurrendako zinema: 'Un
chiuhua en Berverly Hills',**
irailaren 13an, 17:00etan, Lobiano
kulturgunean.

» **'Capitán Abu Raed',** irailaren 17an,
19:00etan eta 21:30ean, Lobiano
kulturgunean.

DURANGO

» **Millenium 1:
Los hombres
que no amaban
a las mujeres',**
irailaren 17an,
20:30ean,
Zugazan.



 ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Distrito 9

Zuzendaria:

Neill

Blomkamp

barikua 11:

19:00 / 22:00

zapatua 12:

19:30 / 22:30

domeka 13:

19:30 / 22:30

astelehena 14: 19:00 / 22:00

martitzena 15: 20:00

Up (3D)

Zuzendaria: Pete Docter

zapatua 12: 17:00

domeka 13: 17:00



BOTIKAK

Barikua, 11
09:00-09:00
• Gaztelumendi
(F.J. Abasolo 2 - Durango)
Zapatua, 12
09:00-09:00
• Sagastizabal
(Askatasun Et. 19 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Mugica / Gaztelumendi / San Roma
/Campillo / De Diego / Unamunzaga /
Balenciaga (Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Irigoien
(Bixente Kapanaga 3 - lurreta)*
• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)*
Domeka, 13
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Cristina
(Trañabarren 15 - Matiena)
Astelehena, 14
09:00-09:00
• Irigoien
(Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
Martitzena, 15
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Isabel
(Torresolo 4 - Abadiño)
Eguaztena, 16
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
Eguena, 17
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112

GARRAIOAK

Euskotren.....902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466

TAXIAK

Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia.....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
lurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690

UDALAK

Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
lurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16

UDALTZAINGOAK

Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
lurreta94 620 08 88

BESTELAKOAK

Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51

KIROLDEGIAK

Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

 **27° BARIKUA**

Eguraldi eguzkitsua izango
dogu. Goizaldean hodeigune
batzuk sortu daitezke, baina
azkar batean desagertuko dira.
Ipar-ekialdeko haizea ibiliko da,
eta tenperatura apur bat
beherago geratu daiteke.

 **27° ZAPATUA**

Giro egonkorragaz jarraituko
dogu. Arratsaldean hodeiak
ugaritu egingo dira. Halan be,
zerua ez da guztiz estaliko, eta
ostarte zabalak ikusteko aukera
izango dogu oraindino. Ipar-
ekialdeko haizea ibiliko da.

 **24° DOMEKA**

 **24° ASTELEHENA**

 **22° MARTITZENA**

OSASUN GIDA

PEDAGOGIA



UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA

*Laguntza goiztiarra, Psikomotrizitatea,
Fisioterapia, Logopedia*

**Juan de Olazarán, 1 behea
48200 DURANGO**

tf: 94 466 83 70 - 615 782 090

FISIOTERAPIA




FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

*Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezin eustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...*

**Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ**

tf. 94 622 55 93

PODOLOGIA



JON GERRIKAETXEBARRIA PENÁ

*OINETAKO KONTSULTAK:
oinen gaitzak, ortopedia eta zirurgia*

**Ermodo, 2- 1. eskuma
48200 DURANGO**

tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

*ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK*

**Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO**

tf: 94 681 99 51



HIRU FISIOTERAPIA

*astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00*

**Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO**

tf. 94 466 94 00



GOIATZ MURUA LETURIAGA

*PODOLOGOA
Kiroprodia, Onikopatia, Alterazio
Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak*

**Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO**

tf: 94 620 36 30



J.L. URRETA ZABALO

*MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
ortodontzia*

**Zumalakarregi 18- 1. ezk.
48200 DURANGO**

tf: 94 681 22 00

LOGOPEDIA



- Psikologia
- Logopedia
- Psikoterapia
- Fisioterapia
- Bach loreak

ume eta helduentzako

**Txibitena, 9A - behea
48200 DURANGO**

tf. 94 681 21 00

mug.: 669 612 362

ahozabal_zentrua@yahoo.es

ESTETIKA



ESTETIKA TRATAMENDUAK

*Obesitate-zelulitis;
Laser: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinen kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...*

**Txatxiena 6
48200 DURANGO**

tf. 94 681 03 87

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

**Komentu kalea 15
48200 DURANGO**

tf. 94 620 00 52

PSIKOLOGIA



JON ARRUBARRENA

*PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA*

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

**Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psikologo.biz**

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

KIROLAK >



Argazkia: Oskar Matxin

Euskaldun Saria irabazi du Alcaldek

Bizkaia-Durango taldeko Cristina Alcalde txirrindulari nafarra irabazi du aurtengo Euskaldun Saria. Domekan Elorrioren korritu zuten azkeneko lasterketa, eta Cristina Alcaldek eta Ane Santestebanek (Debarrena taldekoa) denboraldi osoan mantendu duten lehia estua azkeneko sprintean argitu zen. Seigarren amaitu zuen Alcaldek eta bederatzigarren Santestebanek. Bakoitzari zegozkion

puntuak batuta, berdinduta gertatu ziren sailkapen nagusian, baina Alcaldek Euskaldun Sariko lasterketa gehiago irabazi dituenek—Ara-xesgoa eta Zizurkilgoa—berak jantzi du txapeldunaren elastikoa.

Espainiako Koparako ere puntuagarria zen lasterketa Lointek taldeko Belen Lópezek irabazi zuen. Durangoko taldeak Gema Pascual zuen sprinterako, eta, borrokan sartu bazen ere,

belauneko minaren ondorioz hirugarren postuarekin konformatu behar izan zuen.

lazko denboraldian txirrindularitza utzita egon bazen ere, Alcaldek berehala hartu zuen sasoia, eta oso denboraldi erregularra osatu du. Euskaldun Saria irabazita, Jon Elorriagak zuzentzen duen taldeak urte hasierako helburuetako bat bete du: "Bagenuen irabazteko espe-

Puntu berdinekin, garaipenek eman diote titulua Bizkaia-Durango taldeko txirrindulariari

rantza. Mireia Epelde eta Dorleta Zorrilla ere hor zeuden irabazteko aukerarekin. Ondo egindako lanaren saria izan da", azaldu du Elorriagak. Alcaldek bigarren bider irabazi du Euskaldun Saria.

Laster amaituko den denboraldia baloratzeko orduan, zuhurrago mintzo da: "Taldeak lan itzela egin du, baina egon dira hiru bat lasterketa, kontrolatuta eduki arren, arrazoi bategatik edo besteagatik, ihes egin digutenak. Beraz, denboraldia ona izan da, baina hobeia izan zitekeen". Guztira, bost etapa eta Menorkako Itzulia irabazi ditu Bizkaia-Durango aurten.

Dorleta Zorrillaren denboraldia ere goraiatzekoa da. 23 urtez azpiko Espainiako Kopan lider dago, eta Madrilgo lasterketa bakarrik falta da amaitzeko; asteburu honetan korrituko dute azken lasterketa hori. ■ J.D.

24 Motorshow eguna etzi Abadiñon

III. Supermotard Txapelketa jokatu da etzi Astolan. Lehiaketaz gainera, hainbat ekintza antolatu dituzte; Txus Jaio eta Aitor Martínezen arteko lehia, esaterako.

25 Chris Sharmagaz solasean

Eskaladaren munduko mito kaliforniarra Durangon da egunotan, Dur&Go Masterrean parte hartzeko. Kirol honekiko bere ikuspegi alkimista kontatu digu.

Abadiño motorzaleen bilgune bihurtuko da

Motorzaleen topaketak girotuko du Supermotard Txapelketa etzi



Aitor Martínez (ezkerrean) abadiñarra izango da domekan Motorshow-eko protagonistetako bat.

Etzi Astolan jokatu du den Asier Martinezen Oroimenezko III. Supermotard Txapelketak motorzaleen bilgune ere bihurtu gura du. Mangueta motoclubak, gainera, Motorra maite dutenen topaketa antolatu du lehenengoz.

Izen-ematea Astolan bertan egingo dute, 09:30etik aurrera. Ibilbideari dagokionez, Urkiola igo, Legutianotik pasatu eta Arrasatetik bueltan itzuliko dira. Garain hamarretakoa egin ondoren batuko dira Astolan, marmitakoa bazkaltzeko. Topaketa hori mota guztietako motorrei zabalik dago: customak, Harleyak, kirol arlokoak... Urtetik urtera topaketa finkatzea dute helburu, eta baita Abadiño motor txapelketen

panoraman ezagutaraztea ere. Arratsaldean zehar parrillada prestatuko dute. Motorshowagaz gozatu ondoren, 19:30etik aurrera, Jardin Inferno eta Muted taldeen kontzertuek emango diote amaiera egunari.

Txapelketa ofiziala

Txapelketarako entrenamenduak 16:00etan hasiko dira. Ondoren, 17:30ean supermotard eta minimotard estiloetan lehiatuko dira parte-hartzaileak.

Erakustaldi modura, Txus Jaio eta Aitor Martínez elkarren kontra lehiatuko dira. Batak bestearen kontrako norabidean irten eta zirkuituari hainbat buelta emango dizkiote. ■ J.D.

Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban ibiliko dira; Garain hamarretakoa eginda bueltatuko dira

Astolan, erakustaldi modura, Txus Jaio eta Aitor Martínez elkarren kontra lehiatuko dira

Sorginen Lasterketarako izen-ematea

Sorginen Lasterketa mendiko maratoni erdiak bigarren aldia beteko du hilaren 19an. Izena emateko epea zabalik dago www.calle-9.com/sorginen webgunean. Dagoeneko, 160 lagun apuntatu dira datorren zaturako.

Lasterketa Axpeko San Juan kaletik abiatuko da, 09:30ean. Pol-Pol eta Zabalaitik igo, eta Arrazolako Topetik jaitsiko dira. Tramu laburra aukeratu dutenentzat hortxe amaituko da lasterketa. Gainerakoek beste 10 kilometro egin beharko dituzte, Betsaiden zehar San Rokeetik bueltan. 12:45 inguruan amaituko dute lasterketa. ■ J.D.

Tabirakok Zornotzaren kontra jokatu du lehenengo partidua

Baqué Torneoa jokatu dute mutilek asteburuan

Urdanetak, Zornotzak eta Cafés Aitonak osatu dute parte-hartzaileen zerrenda

Aurrendenboraldian ohiko hitzordua du Baqué Torneoa Tabirakok. Asteburu honetan gizonen artekoa jokatu dute, eta datorrenean emakumeena. Oraindino aurrendenboraldia amaitzeko hiru aste falta arren, taldearen sasoi puntua ezagutzeko balioko du.

Tomas de Castrok gidatzen duen taldeaz gainera, Bilboko Urdanetak, Zornotzak eta Donostiako Cafés Aitonak parte hartuko dute Torneoan. Lehenengo partidua Urdanetak eta Cafés Aitonak jokatu dute bihar, 17:00etan hasita. Segi-

dan, 19:00etan, Tabirakok eta Zornotzak neurtuko dituzte indarrak. Torneoa domekan erabakiko da. 10:00etan hirugarren eta laugarren postuak argituko dituen partidua jokatu dute aurreko eguneko galtzaileek. Irabazleak, berriz, garaikurraren bila irtingo dira 12:00etan. ■ J.D.

Iker Saenz de la Cuesta
• Areto-futbol entrenatzailea



Oporren bukaerak...

... baloia laster martxan jartzea dakar, eta horren aurretik, gogor lan egin beharko dabe areto-futboleko taldeek (forma hartzen, aurpegi barriak taldera egokitzen, fitxak egiten edo diru laguntzak lortzen).

Aurten denboraldi historikoa izango da Durangaldeko areto-futbol munduarentzat, eta talde askok lehia gori-goria izango dabe bere kategorietan. Lehenengo biderrez Durangok emakumeen bi areto-futbol talde izango ditu (Kurutzia eta Kulturala), eta euren arteko derbyak jarraipen handia izango dau (edo hori espero dogu emakumeen kemena eskertzeko). Bestalde, aspalditik bizi izan ez diren Kurutzia-aren eta Sasikoaren arteko derbyak ikusteko aukera izango dogu; lehia polita eta "kiroltasun pike interesgarria" Durangoko zaleentzat.

Gainera, Durangaldean dagoen maila handia azpimarratu gura dogu (joan zen denboraldia sekulakoa izan zen gure taldeentzat). Horren buruan Sasikoa A, Nazional A Mailan talde garrantzitsuen kontra borrokan ibiliko da, ahaztu barik azken urteotan lan galanta egin daben beste talde asko.

Areto-futbolak ikuskizun galanta segurtatuko dau gure kiroldegietan, nahiz eta gure taldeetan Ronaldinhorik ez dagoen, eta espero dot zuek hori baieztatzeak aukera bertatik bertara izatea, gure taldeen partidua animotsu bihurtuz.

Durangaldeko areto-futbola gogor dator!

18 zesta eskola lehia San Fausto Txapelketan

Bihar Tolosak Lekeitioren kontra jokatu du, eta Markinak Donostiaren aurka



Aurten 26. aldia beteko du Durangoko txapelketak. K.Aginako

Bihar hasiko da Ezkurdi Jai-Alaik antolatzen duen San Fausto Zesta Txapelketaren 26. aldia. Denen artean, 18 zesta eskolak parte hartuko dute; Bizkaiko seik, Gipuzkoako bostek, Nafarroako hiruk, Kataluniako bik eta Arabako eta Iparraldeko banak.

Partiduak zapatuetan (18:30) eta domeketan (12:00)

jokatu dituzte. Bihar, txapelketari ekiteko, Tolosak Lekeitioren kontra jokatu du, eta Markinak Donostiaren aurka. Etzi, Durango B-Getxo, Zumaia-Euskal Jai eta Andoain-Berriatua partidua jokatu dituzte. Domekako jaialdia 11:00etan hasiko da, partidua bi barik hiru jokatu dituztelako. ■ J.D.

“Nire motinazinoagaz besteak motibatu izana saria da niretzako”



Arroketa bide barriak ekipatzen orduak, egunak eta urteak eman ditu eskalatzaile kaliforniarak. Jon Balsea

Eskalatzaile berezia dogu Chris Sharma (1981, Kalifornia). Txapelketetatik aspaldi erretirata, eskaladaren munduan sortu dauen karisma eta mito izaera dira bere garaikurrik balioetsuenak. Arroketa ireki diren bide gatxenetako hainbat loturarik bako bere irudi-menari zor deusaguz. Egunotan Durangon dogu Patxi Usobiaga, Tomas Mrazek eta enparauekin batera, Dur&Go Masterrean parte hartzeko gogotsu. Beragaz jardun dogu Masterraren eta eskaladagazko bere ikuspegi naturalaren gainean.

Dur&Goko Masterrean parte hartuko dozu. Zer esperantzazagaz zatoz?

Nire helburu nagusia ahal dodan dena emotea eta dibertitzea izango da; eskalada beste jente bategaz konpartitzea. Ezin izan dot txapelketa ondo prestatu. Edozelan be, normalean ez dot entrenatzen; arroketa bideak zabaltzea da nire entrenamendua, baina kasualitatez azkeneko hile bietan etxebizitza barrizten gabiltz, eta arroketa ibiltzeko be ia denporarik barik ibili naz.

Masterrean ez eze, Block&Go modalitatean be ibiliko zara, beste hiru eskalatzaileguz.

Bai, oso dibertigarria da, zailtasunaz gainera, sormena be jokoan sartzen delako. Bakotxak bide bat sortzen dau, eta bata bestearena igotzen saiatzen gara gero. Ohiko eskalada baino gogorragoa izan leiteke, denbora gehiago daukagulako bideak sortzeko eta perfektionatzeko.

Gainera, eskalatzaile bakoitzak bere estiloa dauka.

Halantxe da. Imaginazioari irekita dago. Esaterako, igaz Dani Andrada oso bide kuriosoa diseinatu eban; ezker-eskuma mugitu behar izan genduen, eta gero leiho batetik eraikinetik kanpora urten. Holako gauzak ezin leitekez txapelketa batean ikusi, ez dagoelako hainbesteko askatasunik.

Eskalada Munduko Txapeldu-na euskalduna da: Patxi Usobiaga.

Makina bat da, eta errespetu handia deusat. Oso disziplinatua da eta erresistentzia itzela dauka. Orainsu beragaz egon nintzen Arco Rock Legends sarietan (Legends saria jaso eban Sharma), eta urrian eskalatzen Kataluniara etorriko dela esan eustan. Beharbada han be batuko gara.

“Nire pasinoa bide barriak bilatzea eta horrek ekipatzea da, zalantza barik”

“Pareta batek, gogorra izateaz gainera, estetiko eta erakargarria izan behar dau”

Urte asko da txapelketetan parte hartzen ez dozula. Zergaitik?

Kontua ez da ez jatazela gustatzen. Gogoko ditut, baina denpora eskatzen dau, eskakizun

batzuk daukaz; asko bidaiatu behar dela, esaterako. Benetan helburu nagusi legez horixe baneu, txapelketara joan eta irabaztea, jardungo neuke, baina ez da nire motibazio nagusia. Arroketa bideak zabaltzea gustetan jat, eta horretan zentratuta nago. Hori da nire pasinoa, bide barriak aurkitu eta ekipatzea.

Arrokan bide barriak irekitzerako orduan, zailtasunaz gainera, estetika be kontuan hartzen dozu.

Edozein pareta oso gogorra izan leiteke; lisua eta helduleku gatxekoa. Baina horretako asko ez dira, esaterako, *Realization* edo *Es Pontas* (Sharma berak irekitako bideak) bezain estetikoak izango. Proiektu bat esku artean daukadanean, denpora asko eskaintzen deusat; toki polit eta erakargarria bilatzeko aukerak motibatu egiten nau.

Zer ezaugarri behar ditu arroka batek Chris Sharma liluratu daian?

Zer mugimendu eskatzen dituen, non dagoen, arroka kalitate... Horreek denek osotasun bat sortzen dabe, eta nabaritu egiten dozu aurrez aurre ikusiz gero. Beti zer edo zer berria bilatzen saiatzen naz. Mugimenduen aldetik interesgarria izan daiteke. Dakidana praktikan ipintzen eta, aldi berean, nire teknika hobetzen lagunduko deustana.

Azkenaldian ireki dozuzen bideetatik zeinek itzi deus holako oroimen berezia?

Bizi nazen tokitik kilometro gitxira Santa Linya-ko kobazuloak dagoz, eta hainbat bide gatx ireki ditut han. Oraindino be horretan nabil. Ez da lan samurra makinagaz han goian ibiltzea, hauts eginda amaitzen dozu.

Zuk irekitako bideak igo ditueenen eritzia jasotze be inportantea izango da.

Bai, eta besteek nik zabalduriko bidean asko disfrutatu dabela entzutea satisfakzino handia da. Begitu: bide barriak irekitzeak halako zirrara sortzen deust ze, behin egun osoa bideak ekipatzen jardun ondoren lurrera jaitzi eta oso nekatuta egon arren begiz (erreferentziarik barik) beste bide bat zabaltu neban. Haxe izan zen, gainera, begiz egindako nire lehenengo 8Ca.

Ez da arroka bat, baina esango neuke Kataluniak be liluratu zaituela. Hantxe bizi zara.

Urte bi eta erdi daroadaz Katalunian bizitzen. Hamar urtean asko bidaiatu izan dot mundu osoan zehar; toki asko ezagutzeko ondo dago, baina ez egonkortasuna eta oreka lortzeko. Katalunian gustura nago, eta oreka hori nire garapen pertsonalerako be ona dela uste dot.

Karisma handiko eskalatzaile zara. Jendeak asko estimatzen zaitu. Nabari dozu?

Ni pozik nago eskaladan eragiteko aukera izan dodalako; nire motibazioagaz besteak motibatu izana sari bat da. Denekin nago oso esker oneko.

Askok dinoe zure izenari ez deusazula ahal zeuntsan etekin guztia atera. Marketing aldetik dinot.

Baleiteke, baina hor be oreka bat bilatzea beharrezkoa da, niri benetan gustatzen jatan horretan zentratuta egon gura badot.

Budista zarela irakurri dot.

Ez naz inongo erlijioa kide, baina egia da budismoaren eta meditazioaren gainean asko irakurri dodala. Eskalatzeak badauka meditaziotik apur bat. Zeure burutazino eta kontzentrazino osoa une eta toki haretara bideratuta dagoz.

Eskaladan Psicoblock modalitatea gustuko dozu.

Ilusino gitxigaz nenbilen sasoi batean eskaladarako grina berriro berpiztu eustan modalitatea izan zen. Eskaladako estilorik puruena dela esango neuke: soka eta jausteko beldur barik zabilz, azpian itsasoa daukazulako. Gainera, Mallorkan zabaldutako *Es Pontas* bidea, segurutik, nik inoiz egindako bereziena eta inportanteena da.

Durangotik gertu Atxarteko arroak dagoz.

Ez dakit denborarik edukiko dodan, baina gustatuko litxakit arroka harek ezagutzea. ■ J.D.





LAUHANKA >



Berez loro gehienek daukie berba egiteko gaitasuna, baina guztiek ez dabe lortzen

Loroari normal berba egin behar jako, etxeko beste kide bat izango balitz legez

Multzotan ibiltzera ohituta dagoz, eta familian gustura sentituko dira

Berbalagun ederra, pazientzia izanez gero

Loroek berba egiten ikasi daien, arreta handiz zaindu beharra dago

Maskotak konpainiarako hartu ohi dira etxeetan, eta gure lagunik onena txakurra ei den arren, beste hainbat animaliak be irabazi dabe protagonismoa azkenaldian. Animalia exotikoak dira horren adibide. Eta konpainia egiteaz gainera, alaitasuna ekartzen badabe, askoz hobeto. Zeregin horretan loroak edo papagayoak dira trebeenetarikoak.

Loroek daukien gaitasun hau dela-eta, zientzialariak eten barik dabilz ikertzen. Orain arte, siringea erabiltzen ebela ondorioztatuta zegoen; trakea eta bronkioen artean dagoen organo bokala, hain zuzen be. Gaur egun, baina, mingainak be garrantzia daukala ikusi dabe. Antza denez, mingainagaz egindako mugimendu txikien bitartez aireari forma emon eta soinuak ezberdindu leikiez.

Animalia honek berba egiteko giti behar dau: pazientzia

kasu egitea bakarrik. Berez, loro gehienek daukie berba egiteko gaitasuna, baina egia da guztiek ez dabela lortzen. Adina, pertsonalitatea eta beste hainbat faktore dira horretan eragiten dabena. Hori bai, abilena eta azkarrena dena errazago helduko da bere helburura.

Trebeetak

Bestalde, badagoz arraza batzuk besteak baino espabilatuagoak direnak. Himalayako Miná, Amazonasak eta Loro gris afrikarrak, esaterako, berba kantitate handia errepikatzen dabe. Afrikarrek geratu barik hitzegiten dabe lehenengo urtea bete eta gero, eta Amazonasek umeen soinuak errepikatzeko ohitura daukie, baita barre algarak imitatzea be. Halan be, Miná da imitatzaile zehatzena.

Klasean

Loroari normal hitzegin behar jako, etxeko beste kide bat izango balitz legez. Ikasketa prozesuko urrats gaxena hastea izango da. Lehenengo berba ikasteko egunak edo asteak emongo ditu beharbada. Ez da komeni irainik eta antzekorik erakustea.

Lehenengo klaseak 10 minutu iraungo dau, eta esaldi sinpleak botako deusaguz. Garrantzitsua da ondo egiten dauenean saria emotea. Modu honetan, hurrengoetarako motibazio handiagoa izango dau.


Ezinbestekoa da konfiantza giroa sortzea bi aldean artean. Eskutik jaten emoteak horretan lagundu leike, baita gure bazkalorduan alboan ipintzeak be. Izan be, loroak multzotan bizitzera ohituak dagoz, eta familian gustura sentituko dira.

Nire katua umeske egon ohi da denpora tarte gitxian, eta deserosoa izateaz gainera, berak txarto pasatzen dau. Zer egin neike? Alaitz (Zaldibar).

Lehenengo eta behin, argi izan behar dozu etorkizunean katuak kumeak eduki daizen gura dozun ala ez. Izan be, metodo antikonzeptiboak tenporalak edo iraunkorrak izan leitekez. Lehenengoak (tenporalak) anobulatorioak dira, baina horreek efektu sekundarioak eragiten ditue. Beraz, kumerik gura ez badozu, onena katuari ebakuntza egitea da, obarioak eta umetokia kenduz. Bi egunen buruan errekuuperatuko da katua.

Bidali zuen galderak helbide honetara (izena eta herria ipinita):

astekaria@anboto.org





EMON *pausoa*

***Emon pausoa
euskara ikasteko!
Etxean jasoko duzu zeure
herrian euskara ikasteko
dauzkazun bideen berri
ematen duen gida!***

Durangoko
Merinaldearen
Amankomunazgoak
prestatutako gida honetan,
zeure herrian euskara
ikasteko dauzkazun bideak
aurkezten dizkizugu.
Ikastaro motak, diru-
laguntzak, helbideak...
Emoiozu begiratu bat eta
hurreratu zure beharretara
egokitzen den zentrora.

**Bidea prest daukazu:
emon pausoa!**

**Informa zaitez zure
herriko euskara
zerbitzuan.**

Abadiño: 94 621 55 35
Atxondo: 94 682 10 09
Durango: 94 603 00 16
Elorrio: 94 658 27 12
Zaldibar: 94 682 70 16
Iurreta: 94 620 12 00
Izurtza: 94 681 35 48
Mañaria: 94 681 89 98

Administrazioa



Radio






IRAGARKIAK

LANA

- Eskaerak
- Eskaintzak
- ETXEBIZITZAK**
- Salgai
- Errentan eman
- Errentan hartu
- Pisua konpartitu
- IRAKASKUNTZA**

- Klaseak hartu
- Klaseak eman
- MOTORRA**
- Salgai
- Erosi
- LOKALAK**
- Errentan eman
- Errentan hartu
- ANIMALIAK**
- Salgai
- Erosi
- BESTEAK**
- Berba egin
- Salgai



Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak ostiral horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

DOAKO IRAGARKIAK

(partikularrak):

- Bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org edo
- Deitu 94 681 65 58 telefonora

ORDAINDUTAKO IRAGARKIAK (ez profesionalak):

Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

Durango. Merkataritzako agentea behar da bezeroen bilketa eta mantenurako. Derrigorra da esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.449. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Merkataritza agentea behar da aseguruen informazio eta salmentarako. Derrigorra da heziketa ertaina izatea, ordutegi malgua izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.455. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

ESKAINTZAK

Esperientziadun neska euskalduna arratsaldetan umeak zaintzeko prest dago. Baita beste edozein lan egiteko be. Tel.: 690 776 431

Elorrio. Irailetik aurrera, arratsalde ume txikiren bat zaintzeko prest nago. Euskalduna, arduratsua eta esperientziaduna naiz. Tel.: 635 704 512

Haur hezkuntzako ikasketak amaituta dituen neska umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 667 263 411

Pertsona nagusiak eta gaixo daudenak zaintzeko prest nago, baserrietan. Euskalduna naiz eta neure kotxea daukat. Esperientziaduna. Tel.: 696 139 822

Ostalaritzan lan egiteko prest nago. Esperientziaduna naiz. Euskalduna naiz eta neure kotxea daukat. Tel.: 696 139 822

Emakume arduratsu, serio eta esperientziadunak lana bilatzen du ume eta nagusien zaintzan, baita tabernen garbiketan ere. Kanpotik etorrita edo interina legez, gauetan zein asteburutan. Tel.: 676 196 608

Emakume arduratsua eta esperientziaduna nagusiak zaintzeko edo etxeak garbitzeko prest dago. Erreferentzia onekin. Orduka, egun erdiz, gauetz zein asteburutan. Tel.: 606 193 675

Argazkilari esperientziaduna ezkontza eta bestelako ekitaldietan argazkiak egiteko prest dago. Prezio onean. Tel.: 680 592 903

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Elorrio. Atiko berria salgai. 50 m2. Logela, sukaldea, egongela, komuna eta igogailuarekin. Oso polita. Alokatzeko aukera. Tel.: 606 043 835

Zaldibar. Pisua salgai. 75 m2 ditu, 3 logela, egongela eta ganbara ere badu. Prezio ona. Tel.: 655 739 792

Elorrio. Etxebizitza salgai herri barruan. Igogailuarekin. Logela eta komun birekin. Trastelekua be badauka. Tel.: 657 793 993

Elorrio. Pisua salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea, estudioa eta trastelekua. Guztiz berriztatua, eguzkitsua eta oso polita. Tel.: 617 787 165

Abadiño. Etxebizitza salgai Muntzaratz auzoan. 3 logela, egongela handia, 2 komun, sukaldea, trasteleku txiki bi etxean eta ganbara. Berriztatua. Altzariakin, nahi izanez gero. Lokal komertziala aukeran (kotxe birentzako lekua). Tel.: 667 882 338

ERRENTAN EMAN

Durango. Pisua alokagai Kalebarrian. Logela bi. Hirugarren solairua, igogailuagaz. Eraikin berria. Urriaren 1etik aurrera. Tel.: 686 989 963 - 696 163 532

Durango. Pisua alokagai. 3 logela, berogailua eta igogailuarekin. Tel.: 638 125 838

Zaldibar. Pisua alokagai. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Tel.: 655 739 792

Zaldibar. Logela bat dut alokagai. Tel.: 655 739 792

Pisua alokagai Peñiscolan. Tel.: 686 562 018

Bungalow bat alokagai Torreveijan. Urbanizazio pribatuan. Igerilekua, 3 logela, egongela, sukaldea eta solariuma. Hondartzatik 200 metrora. Tel.: 615 779 622

ERRENTAN HARTU

Elorrio. Alokatzeko pisu baten bila nabil. Altzariakin. Tel.: 94 658 21 91 (Bego)

Durango. Semeagaz konpartitzeko alokairuko pisu baten bila nabil. Tel.: 605 749 443

KONPARTITU

Elorrio. Neska bat behar da pisua konpartitzeko. Tel.: 634 462 503

MOTORRA

SALGAI

BMW 318 IT salgai. 98. urtekoa. Gasolina. 143 zaldi. Pack M. 171.000 Km. 4.500 euro, negoziagarria. Tel.: 662 040 493

Ford Mondeo 1.8 TD salgai. 1997koa. Egoera onean. 2.000 euro inguruan. Tel.: 691 063 278

Opel Corsa 1.7d salgai. 277.000km. 600 euro. Tel.: 656 721 810

Ford Galaxy Trend 1.9 tdi salgai. 130 zaldi, amortiguadore berriak, 17ko llantak, margotu berria, gris metalizatu. Oso egoera onean. 14.000 euro. Tel.: 655 712 105

EROSI

Erabilitako karabana erosiko nuke. Txikia eta merkea. Tel.: 94 621 82 88 (Deitu gaueko 22:00etatik aurrera)

LOKALAK

SALGAI

Elorrio. Pabilioiak salgai. 360 m2 eta 630 m2. Tel.: 657 793 993

Durangaldeko Behargintza
Eskualdeko Garapen Agentzia
Agencia Comarcal de Desarrollo

Herriko Muntzaratz Auzoaren Arantza Komunitateak

EUROPAKO ERKIDEGOA
Europako Gizarte Funtza

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Lan eta Enplegu Zerbitzua

2009/2010 IKASTURTERAKO PRESTAKUNTZA ESKAINTZA

CNC MEKANIZATUAN TEKNIKARIA 225 ordu

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN INSTALATZAILEA 315 ordu

Izena emateko epea: 2009ko irailaren 25a arte

Informazio gehiago Durangaldeko Behargintzan

Durangaldeko Behargintza Laubideta, 6 Durango tf: 94 623 25 22
Ordutegia: asteleheneratik ostiralera 08:00etatik 15:00etara

www.amankomunazgoa.com

LANA ESKAERAK

Durango. Goizetan (7.30-9.00) umea ikastolara eramateko neska edo emakume euskaldun baten bila nabil. Tel.: 653 012 011

Zaldibar. Gazteleku (ostiraletik igandera) eta Zapatublairako (zapatu bat bai eta bestea ez) hezitzaile bila gabiltza. Beharrezkoa da 18 urte edo gehiago izatea, euskaraz ondo jakitea eta haur nahiz gazteekin jarduteko trebea izan eta gogoia edukitzea. E-mail: haurrak@txatxilipurdi.com Tel.: 943 79 54 46.

Durango. Umeak zaintzeko emakume euskalduna behar da. Irailean zehar 5 ordu goiz/arratsalde eta urrian zehar 2 ordu arratsalde. Tel.: 616 748 109

Pertsona bat behar da umeak eskolara eramateko eta etxeko lanak egiteko. 7:30etik 11:00etara. Kotxea izatea derrigorra da. Tel.: 660 723 602

Durango. Zerbitzaria behar da mahaia zerbitzatzeko. Derrigorra da esperientzia izatea, kotxea izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.207. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Sukaldaria behar da menuak eta pizzak egiteko. Derrigorra da urtebeteko esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.208. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

ERRENTAN EMAN

Abadiño. Garajea alokagai Matienan, Pinako plazaren azpian.
Tel.: 94 681 70 67

Elorrio. Garajea alokagai Labakuan.
Tel.: 680 597 379.

Abadiño. Muntsaratz auzoan ileapaindegia traspasatzen da.
Tel.: 662 554 077

Durango. Trastelekua alokagai. 15 m2 ditu eta merkea da. Tel.: 629 415 416

IRAKASKUNTZA EMAN

Lizentziatua laguntza klaseak emateko prest, bakarka. LH, DBH eta Batxiler-goa. Tel.: 686 810 203

HARTU

Italiera klase partikularrak jaso gura ditut. Durangon edo Durangaldean.
Tel.: 620 218 271

ANIMALIAK SALGAI

Lau mozal angloarabe eta gurutzatu bat salgai. Urte bat eta bi bitartean. Papelekin. Tel.: 677 602 160

Oilo eta oilasko txikiak salgai. Tel.: 639 391 697

OPARI

Artzain txakur emea oparitzen dut. Hiru hilabetekoa. Tel.: 616 936 351

BESTEAK

SALGAI

Karreratako bizikleta eta ziklo kroseko bizikleta salgai. Tel.: 648 260 880 (Maite)

Erabilitako CDak salgai. 400 inguru dira. Txollo ona da, benetan Tel.: 606 266 244

Bizikleta koadroa salgai. Berria da, Goka Knife modeloa. Tel.: 686 651 382

Neopreno laburra salgai. Madmess Titanium. Berria da, erabili gabekoa. Etiketekin. Beltza eta gris iluna. Neurria "S"~155cm. Tel.: 658 738 734

Umeak zaintzeko tresnak salgai. biberoiak berotzekoa 20 eurotan. Esnea ateratzekoa 35 eurotan. Quinny Buzz aulki gorria neguko zakuarekin 150 eurotan. Aurrekoak erosiz gero, haxe oparitan: beste zaku bat, aterkientzako gailua, aulkirako erretilua eta plastikoa. Tel.: 627 012 192

Neopreno (SAILFISH VIBRANT) berri bat salgai, gizonezkoen "S" neurrikoa. Gama altukoa. Prezioa: 325 euro Tel.: 665 714 783

Trikitixa salgai. Urte bat baino ez dauka.1.400 euro. Tel.: 686 321 060 (Itxaso)

Bosch silver edition aire girotua salgai. Aire hotza, beroa eta hezeta-sun aukerak. Informazioa eskatu uptheball@hotmail.com helbidean.

Akordeioa. Paolo Soprani 96 baxua. Tel.: 665 738 563. (Joseba).

Soinu mahaia salgai. ECLER MAC 2-4 markakoa. 100 euro. Tel.: 94 682 08 30

Lur-saila. 42.000 m2-ko basoa salgai. Oriol mendiaren azpian. Tel.: 600 313 200

Lur-saila. 13.500 m2ko lur-saila salgai Zaldibarren. Eraikitzeko aukerarekin. Prezio onean. Tel.: 629 419 411

INMOBILIARIAK



AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 - bajo - Tel. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

ETXEBIZITZA BERRIAK

- Andra-Mari: Apartamento berriak salgai.
- Zaldibar: Eraikitzen dauden etxebizitzak salgai.
- Abadiño: Txalet bifamiliarra lur eremuarekin salgai.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin salgai.
- Atxondo: Baserria salgai.
- Errentxu: Adosatua eraikitzen.
- Errentxu: Txalet bifamiliarra eraikitzen.
- Otxandion: Adosatua. Eraikuntza berriak.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Anbrosio Meabe: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Ganbara.
- Andra Mari: Estudioak guztiz berriztuta.
- Andra Mari: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 4 logela, 2 komun, egongelatxoa. (135 m2).
- Antso Eztegiz: Halla, egongela, sukaldea, 4 logela, komuna, bainugela, balkoia eta ganbara.
- Aramotz: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela, komuna eta balkoia.
- Arriluzea: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna. Balkoia eta atikoa.
- Artzetagan: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna.
- Astarloa: Halla, egongela, sukaldea, 4 logela eta komuna. Terraza.
- Barrenkale: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna.
- Monteideo: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 5 logela eta 3 komun. Terraza eta ganbara. (150 m2)
- Elorrio: Halla, sukaldea, balkoia, 3 logela, egongela eta komuna. Trastelekua eta garajea.
- Ermodo: Halla, egongela, sukalde-jantokia, 2 logela, 2 komun.
- Errentxu: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta 2 komun. Balkoia.
- Ezkurdi: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun.
- Juan Antonio Abasolo: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna. Balkoia.
- Gasteiz bidean: Halla, egongela, 3 logela, sukaldea eta komuna. Despentsa eta balkoia. Garajea aukeran.
- Goienkalen: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, komuna eta ganbara.
- Herriko Gudari kalean: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun, balkoia. Garajea eta ganbara.
- Iparragirre: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela, 2 komun eta terraza. 2 kobxerentzako garajea eta trastelekua.
- Juan de Itziar: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.
- Kalebarria: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Kalebarria: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. (Guztiz barritzuta).
- Kirikiño: Halla, 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.



ISD
Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO
Tel./Faxa:94 681 66 66 inmobisd@euskalnet.net
www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
 - Logela bakarra garajea eta trastelekuarekin 162.000+BEZ
 - 2 logela garajea eta trastelekuarekin 224.000+BEZ
 - 3 logela garajea eta trastelekuarekin 353.000+BEZ
 - 4 logela garajea eta trastelekuarekin, kontsultatu.
- Tabira: Luxuxko etxebizitza berrien promozioa.
- Berriz: Familiabakarreko etxebizitzak eraikitzen. 1.160 m2-ko lursaila.
- Berriz: 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak.
- Elorrio: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Iurreta: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Matiena: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Durango: Ermodo kalean. 90 m2.
- Durangaldea: Baserri eta txalet ezberdinak, Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta. ...
- Durangaldea: Lokal komertzialak. Aukera zabala
- Durangaldea: Pabilioi ezberdinak salgai eta alokairuan.
- Alluiz: 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Prezio ona.
- Mañaria: Etxebizitza erdi berria bizitzen sartzeko prest.
- Mañaria: Etxebizitza berriak estreinatzeko.
- Zaldibar: Lur saila salgai. Eraikitzeko aukera.
- Zaldibar: Etxebizitza tasatuak. Zozketa gabe.
- Ezkurdi: 130 m2. 4 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun.
- Askatasun Etorbidea: Duplexa. Izugarria.
- Landako: 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. 2 terraza eta garajea. Ganbara. Bizitzen sartzeko prest.
- Fray Juan de Zumarraga: Duplexa.Ezin-hobe.
- Fray Juan de Zumarraga: 4 logela. Ikuspegi zoragarriak.
- Zabale: 90 m2-ko etxebizitza polita. Garajea eta ganbara. Eguzkitsua.
- San Inazio: Beheko solairua. Pertsona ezinduendako aproposak.
- San Inazio: 90 m2. Garajea eta ganbara. Bizitzen sartzeko prest.
- Ermodo: 90 m2.
- Madalena: 2 edo 3 logelako etxebizitzak.
- Herriko Gudarien kalean: 135 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Oso eguzkitsua. TERRAZA handia. Garajea eta trastelekua.
- Murueta Torre:Leku-aldatzea dela eta etxebizitza ezin-hobe saltzeko premia. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta trastele-kua.
- Landako-Txibitena: 2 eta 3 logela.
- Txibitenan: 3 logela, egongela, 3 komun, sukaldea eskegitokiarekin. Balkoia. Garaje aeta trastelekua.
- Arriandi: 100 m2. Beheko solairua. 3 logela. Prezio ona.
- Arriandi: 2 logela. Garajearekin.



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
Fray Juan de Zumarraga, 4. 48200 Durango
Tel.: 94 681 40 40

ETXEBIZITZA SALGAI

- Durango: Aukera ona. Bizitzen sartzeko prest. 156.300 €.
 - Durango: Estreinatzeko. Logela bakarra. Sukaldea jantzita. 192.000 €.
 - Ermodo: 100 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi berria. Bizitzen sartzeko prest.
 - Pinondon: Duplexa. 126 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Ikuspegi ikusgarriak.
 - Montevideo: (Jesuitas). Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
 - Franzisko Ibarra: 100 m2. Eraikuntza berria. Pisu altua. Terraza. Garaje itxia.
 - Murueta Torre: Azkeneko solairua terrazarekin. 3 logela. Garajea eta trastelekua.
 - Mendizabal: 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea.
 - J. Olazaran kalean: 2 logela. Erdi berria.
 - Tronperrin: 115 m2. Guztiz kanpora ematen du. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea. Solariuma eta txokoa.
 - Durango: Estreinatzeko. 2 logela. Guztiz kanpora ematen du. Eguzkitsua. Garajea eta ganbara.
 - Tabira: 2 logela eta 2 komun. Berria. Eguzkitsua.
 - San Ignazio: 3 logela eta 2 komun. Kanpora ematen du. Eguzkitsua. Terraza. Garajea aukeran.
 - Antso Eztegizen: 3 logela, komuna eta egongela. Terraza. Eguzkitsua.
 - Ezkurdi: 150 m2. 4 logela, 2 komun eta egongela. Terraza. Aire girotua. Garajea.
 - Ezkurdi: 70 m2. 1.go solairua.
 - Mikeldin: 4 logela eta 2 komun. Ganbara.
 - Sasikoa: 2 logela. Erdi berria. Ganbara. Garaje itxia. IURRETA
 - Bidebarrietan: 3 logela. Igogailua. Terraza. Bizitzen sartzeko prest.
 - Maspe kalean: 3 logela eta egongela. Igogailua. Berogailua eta terraza. Bizitzen sartzeko prest.
 - Zubiaurre: 3 logela. Bizitzen sartzeko prest. 210.000 €.
 - Dantzari kalean: 2 logela. Aukeran. 190.550 €.
- ABADIÑO
- A.Baesclin: 3 logela. 192.000 €.
 - Trañaetxosten: 3 logela. 210.000 €.
 - San Trokaz: Logela bakarra. Erdi jantzia.
 - Iturritxu: Berria. 2 logela eta 2 komun. 2 Terraza. Ganbara eta trastelekua. Garajea.
- ZALDIBAR / BERRIZ
- Zaldibar: Berriztatua. Eguzkitsua. 3 logela, egongela eta sukaldea. 201.188 €. (33,5 mill.).
 - Zaldibar: Zalduasolo. 90 m2. 3 logela, 2 komun eta egongela. Terrazak. Garajea aukeran.
 - Berriz: 2 logela. Berriztatua. 154.500 €.

LOKAL KOMERTZIALAK

- Madalena: 80 m2. Instalazio guztiekin.
- Iurreta: 109 m2.
- Iurreta: 255 m2. 1.380 €.
- Landako: 60 m2. Guztiz egokitua. 650 €.
- Oiz kalean: 60 m2. 125.000 €.



Amboto
San Agustinalde, 4 - 1 Eak.DURANGO
TF: 94 681 35 62 email: iamboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZA SALGAI

DURANGO

- Apartamento berriak eraikitzen.700 € hilero.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak. 172.000 €-tik hasita. Lehen mailako materialak. %100eko finantzaketa.
- Durango: Eraiki berria. 2 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta garaje itxia. Lehen mailako materialak.
- Tabira: Eraikuntza berria. Logela bakarreko apartamentua. Sukalde -jantokia, komuna eta esekitokia.
- San Inazio Auzunea: Berriztatu berria. 3 logela, (logela printzipala komuna eta jantzigelarekin), 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Aire girotua. Ganbara eta garajea.
- Pedro Pablo Astarloa: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea.
- Barrenkale: AZKENEKO DUPLEXA. Eraiki berriak.
- Herriko Gudarien kalea: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza eta garaje itxia.
- Franzisko Ibarra: Logela bakarreko apartamentua. Garaje eta ganbara. Berriztatuta.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, eta komuna. Ganbara.

IURRETA

- 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiare-kin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.

ELORRIO

- Erreka kalea: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Guztiz berriztatua.

MATIENA-ABADIÑO

- Txinurrisolo: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara, garajea eta trastelekua. Guztiz kanpora ematen du.

JAKA

- Apartamentua. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje aeta trastelekua. Ia berria. Estreinatzeko.

ATXONDO

- 2 logela, 2 komun, sukaldea, esekitokia eta egongela. Garajea. Berria, estreinatzeko. Prezio interesgarria.

TXALETAK SALGAI

ABADIÑO

- Mendiola. Bifamiliarra.Eraiki berria. Estreinatzeko.Informazio pertsonalizatua.

DENPORAPASAK>

HITZ GEZIDUNAK >

		* Irudiko perretxikoa	▼	Nafarroako mendatea	▼	Bare
Mahatsondoar en adar				Ongien		
▶			▼			▼
Esfera		▶				
Guztia						
Ipar EH-n, zigarroak	▼	Debako	▶	▼		
Foru polizia		Kez beteak				
▶		▼				
Geneukake	▶					
Piztia, abere						Zigorak
▶					1000	▶
					Masaila	▼
Rutenioa	▶		Lehia	▶		
Ondorioak			Kisua, klera			
▶			▼			
Hasil	▶				Titanioa	▶
Kontso. bustia					Aurizkia	
▶		Tripa	▶		▼	
		Lotan				
Sexu eme	▶	▼		Euskal sindikatua	▶	
Okoko biztanleak				Röntgen		
▶				▼		

SUDOKU >

1	6		5	8	1			4
		3		7	2		1	
1	2		4					
	1				2	4	6	
3				7	1			
8						7	9	
4		7	2				1	5
5					6	2		
2	9		3					8

2	7	1			2			
2		9	4	5				
						5		
				7			4	
5	4				6	7	3	
						1		7
			3	2		8		9
			1			4	6	

3	2	9	4	7	6	1	5	8
6	5	7	8	1	2	9	4	3
7	8	1	5	3	9	6	2	4
1	3	7	6	8	9	5	4	2
9	6	5	2	4	8	1	3	7
4	3	8	1	6	9	2	7	5
7	1	5	8	2	3	9	6	4

2	9	1	5	3	7	6	4	8
4	6	8	3	7	1	9	5	2
8	5	2	9	6	4	1	3	7
3	4	7	1	8	5	2	9	6
9	8	6	4	2	7	5	1	3
1	2	5	3	9	8	7	4	6
6	7	5	8	1	3	9	2	4

K	V	R	R	V	O	K	O
V	L	E	•	U	L	V	•
L	E	B	V	S	•	T	T
I	•	N	I	N	K	E	•
K	A	N	I	G	A	R	E
A	•	D	E	•	R	U	•
M	•	I	A	R	I	P	A
•	E	•	N	E	G	•	•
E	T	E	L	E	K	M	I
R	B	A	R	D	•	Z	•
A	L	•	B	O	•		
N	E	A	H	A	•		
•	B	•	G	•			

HOROSKOPOA >



Aries

marxoak 21 - apirilak 20

Beti baserrikoa zarela esaten, baina, noiz joan zara azkeneko mendira? Honezkero, esnea nondik datorren be ahaztu jatzu!



Taurus

apirilak 21 - maiatzak 20

Gezurtia herrera baino lehenago harrapatzen ei da. Ez zaitue oraindino harrapatu? Zurea bai kasu kurioso!



Gemini

maiatzak 21 - ekainak 20

Zer da edertasuna? Begiratzten dozu zeure burua ispiluan? Bakotxa den modukoa ei da-eta...



Cancer

ekainak 21 - uztailak 20

Ez itzi zuen hartu-emonaren motorra alde batera jausten. Aste honetan izan zaitez kementsuagoa bikoteagaz.



Leo

uztailak 21 - abuztuak 23

A gripea daukazula? Lanera bueltako sindromea izango da segurutik, oraindino pasatu barik daukazu-eta.



Virgo

abuztuak 24 - irailak 23

Laneko arazoak itzi egizuz lanean, eta ez ekarri etxera. Lantokitik irtetzean txip aldaketa egin beharko zeunke!



Libra

irailak 24 - urriak 23

Ez al dozue elkar ulertzen? Arazoa ez da bada hizkuntza izango? Frantsesagaz probatu beharko dozue, beharbada...



Scorpius

urriak 24 - azaroak 23

Egindakoa hor geratzen da, ez dago atzera-bueltarik. Norbaiti kaltea eragin badeutsazu, barkame-na eskatzea besterik ez dozu.



Sagittarius

azaroak 24 - abenduak 23

Tripa handitzen joatzula? Zer uste zenduen bada, jatekoak ez dauela eragiten? Dena dela, zorionaren bihurtzea omen da hori...



Capricornus

abenduak 24 - urtarrilak 20

Guztia brometan hartzea be ez da kontua. Alai bizi beharra daukagu, baina ingurukoak gogaitu barik bada, hobeto.



Aquarius

urtarrilak 21 - otsailak 18

Zabaldutako aukera barriei. Ezin dogu egoera berberetan bertan gozo geratu; ikasi eta probatu!



Piscis

otsailak 19 - martxoak 20

Zer dinoe zure begi triste horreek? Betaurrekoek be nekez estaltzen ditue. Aste honetan zergaitik poztu izango dozuz.

ZORION AGURRAK >

agurrak: zorionak@anboto.org-ra Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta



June Astigaragak

irailaren 9an 8 urte egin zituen. Zorionak familia eta lagunaren partez. Mosu bat etxeko printzesari.



Oihan Espin Aranak

uztailaren 27an 4 urte egin zituen. Zorionak familiaren eta June, Peru, Ane eta Mararen partez.



Txiki!

Hainbeste opariren ostean...hemen daukazu Alemaniatik opari txikitxo hau. Zorionak Malen! Patxo asko!



Iker Vallejo Lopezek

irailaren 12an urte bi egingo ditu. Zorionak aitite, amama eta familia osoaren partez, gure laztantxoa.



Asier Vallejo Lopez

uztailaren 27an jaio zen. Ongietorri eta mosu handi bat aitite, amama eta familia osoaren partez.



Zorionak, Irati zure 10. urtebetetzean. Mosu handi bat familia osoaren partez. Jarraitu horrela alai eta jatorra izaten.



Zorionak pareja! Bata 9an eta bestea 10ean! Zuen urtegunak ederto pasatu izana espero dot, eta...bertara bueltatzen naizenean...afaritxo bat egin beharko dogu danok batera. Alles gute zum Geburtstag Frankfurtetik. Patxo asko asko bixori!



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dogu. Horretarako beharrezkoa da bialdutako mezuagaz

batera telefono zenbakia emotea. Zorionak lurretako Alazneri. Aste honetan zotz egin dogun tarta zeuri egokitu jatzu.

EKODEN

HORTZ KLINIKA



Arkotxa, 4 etxabea
DURANGO
Tel. **94 621 78 22**

*Hortz-protezia mugitzen bazaizu,
implanteen bidez hezurrera
finkatzeko tratamenduak jartzen
ditugu zure eskura*



*Ortodontzia-
tratamenduak,
marruskadura
txikiko braqueten
bidez, urte betean*

 **mutualia** ko **Itunpeko
Klinika**

% 5 ETIK 10 ERA
A R T E K O
BEHERAPENAK
H O R T Z -
INPLANTEEN
TRATAMENDUETAN

**Zure tratamenduak 12 hilabetetan
finantzatzen ditugu, interesik gabe**

Kontsultatu gure tarifak hemen:

www.clinicaekoden.com

harritu egingo zara

AKUILUAN

■ Jone Guenetxea ■ Argazkia: Iban Gorriti

LAUHORTZA



Jasone Agirre
Kazetaria

Irri

"Baserritik bizitzeko hainbat gauzatan jardun behar dozu"

Animaliak hazteaz gainera, Balentin Jauregik nekazal turismoa jarri dau martxan Iguriako baserrian

Elorriarrak Ferixa Nausi-koen erdibidera heldu dira. Jaiei izena eta iza-na emoten deusena feria izaten da. Joan zen domekan baserritarrek abere eta produktu onenak azokako erakusleihoan jarri zitueen. Egu-raldia lagun, milaka pertso-na gerturatu ziren azoka ingurura. Balentin Jauregi elorriarrak be ez eutsan hitzorduari hutsik egin. Igu-ria auzoko baserritarrak hamarkada bi daroaz azokan parte hartzen.

Ferian zein postu jarri dozu?
Ganaduagaz joan gara feriara. Behi ak eta txahalak eroan ditut.

Salmentak zelan joan dira?
Ferian ez da asko saltzen. Erakus-leiho bat izaten da. Gehienetan bertan ikusitakoaren salmenta egiteko etxean gelditzen gara. Halan be, aurten txahalen bat sal-du dot. Salmentak ondo joan dire-la esango neuke.

Behiak bereziki presta-tzen dozuz?
Azokara eroateko askok ondo-ondo

garbitu eta prestatzen ditue. Ada-rak be garbitzen deusez. Neuk be apur bat atontzen ditut.

Goizean goizetik ibili beharko dozue.
Aurreko egunean behiak gertu izten doguz. Feria egunean bertan, goizeko seirak inguruan eroaten doguz. Goizetik ibili beharra dago, eta azoka amaitzen denean dena batu eta berriro etxera eroateak be lana dauka.

Zenbat urte daroazuz ferian parte hartzen?
Hogei urte inguru izango dira lehe-nengoz joan nintzenetik. Aurretik aitag parte hartzen eban, eta orain neu naz animaliak eroaten ditue-na.

Urteotan aldaketarik somatu dozu?
Azoka ez da askorik aldatu. Lehenago baserritar gehiago hurrera-tzen zen. Orain, jentea egun-

pasa etortzen da. Halan be, jente piloa etortzen da feriako jeneroa ikustera.

Betiko galdera. Baserritik bizi leiteke?
Posible da baserritik bizimodua ataratzea. Hori bai, aberastea ez da erraza. Bere alde onak be badau-kaz, bestela tailerrera joango gina-teke beharra egitera.

Krisia baserrietara be heldu da?
Baserria beti egon da krisian. Gure-tzat ez da barria. Orain hogei urte eta gaur egun baserritarrendako jarrita dagozen prezioek ez dau-kie alde handirik.

Baserriko bizimodua oso lotua dela dinoe.
Bai, baina geroago eta gitxia-go. Lehenago baserri-tarrak egun guztia baserrian egon behar izaten eban, oporretan be bai. Orain egun batzuk ateratzeko kon-pontzen gara, zelan edo halan. Lana

beste modu batean antolatzen saiatzen gara.

Zuen baserrian zer animalia daukazue?
Behiak eta txarriak ditugu. Baso-txarri elkartean dihardugu.

Ibarluze nekazal turismoa be ipi-ni dozue martxan.
Baserritik bizitzeko modu baka-rra hainbat gauza martxan jar-tzea da. Gauza bakarrean jardue-nez gero, txarto badoa, zailtasu-nak izaten dira. Guk handik eta hemendik zeozertxo ataritzen dogu. Nekazalturismoa helburu horregaz ipini genduen.

Zelako bezeroak joaten jatzuez?
Oporretan kataluniarrak eta aste-buruetan Bilbo ingurukoak izaten dira. Gehienak, koadrilak umee-kin.

Balentin Jauregi

46 urte daukaz
Baserritarra da

Unai Iturriaga eta Asisko Urmenetari *Berrian* eginda-ko elkarrizketan, Asiskok dio Euskal Herrian oso gutxitan jasotzen dugula zerbait itzu-leran, eta horregatik gustatzen zaizkiola zuzenean egindako emanaldiak. "...Jende aurrean zerbait marraztu edo esan eta irri egiten duen ala ez ikus-tea, ulertu duen ala ez senti-tzea": hori plazer handiene-takoa dela uste du. Dela arra-kasta, dela porrota.

Hartu-emanekin ere antzera gertatzen zaigula uste dut. Hemen euskaldunok oso gutxitan jasotzen dugula, edo ematen dugula, zerbait itzu-leran. Aita-amei maite ditu-gula esatea pelikula amerika-rretako kontua da guretzat; "gu ez gara horrelakoak". Neba-arrebei esatea, "zertarako? Badakite-eta". Lagunei es-atea, oraindik gutxiago; "Ken-du hemendik" esango luke-te, agian. Eta horrela, bizitza joan egiten zaigu, zenbat mai-te ditugun esan edo erakutsi barik.

Euskaldunok gutxitan jasotzen dugu edo ematen dugu zerbait itzuleran

Ondoan daukazunare-kin, egia esan, "zuzeneko ema-naldi" gehiago egoten dira, eta jaso jasotzen da, eta eman ere bai, zerbait itzuleran. Baina ez zaio esaten benetan pla-zerra dela bera ondoan edu-kitzea; eskertzen dudala bene-tan berak sentitzen duena esatea, dela nire arrakasta, dela nire porrota, eta, batez ere, eskertzen diodala lerro hauek idazteko arrastoa berak eman izana. Jakin dezala gaur nik irri egin dudala.



GALDERA:

Ze euskera elkarte ari da bere 20. urteurrena ospatzen?

Izena: _____

Tel.: _____

Makatzeta jatetxerako lagun birendako afari-txartela zotz egingo dogu.

Bialdu erantzunak: Bixente Kapanaga, 9 lurreta edo astekaria@anboto.org
helbideetara, Hilaren azken alsean agertuko da irabazlea.

